



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko azaroaren 26a

106. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak egindako fiskalizazio txostena, “Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituei buruzkoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

“Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|---|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p> I.1. Agindua (3. or.).</p> <p> I.2. Informazio orokorra (3. or.).</p> <p>II. Helburuak, norainokoa eta mugak. (4. or.).</p> <p> II.1. Xedeak (4. or.).</p> <p> II.2. Norainokoa (4. or.).</p> <p> II.3. Mugak (5. or.).</p> <p>III. Iritzia (6. or.).</p> | <p> III.1. Kontusailak, aurkeztutako kontuak eta jardueren emaitza ekonomikoak (6. or.).</p> <p> III.2. Legezketasuna (7. or.).</p> <p> III.3. Funts publikoen kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia (7. or.).</p> <p>IV. Ondorioak eta gomendioak (8. or.).</p> <p> IV.1. 2003-2006 aldiaren eginiko gastuak (8. or.).</p> <p> IV.2. Hezkuntza Departamentua (10. or.).</p> <p> IV.3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua (10. or.).</p> <p> IV.4. Gizarte Ongizateko Departamentua (17. or.).</p> <p> IV.5. Herri Lan Departamentua (18. or.).</p> <p> IV.6. Lehendakaritza Departamentua – Komunikazio Zuzendaritza Nagusia (19. or.).</p> <p> IV.7. Dirusarrerak (20. or.).</p> <p> IV.8. Gauzatutako ekintzek izandako emaitzen ebaluazioa (20. or.).</p> <p>I. eranskina (22. or.).</p> <p>II. eranskina (24. or.).</p> <p>III. eranskina (29. or.).</p> <p>Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak aurkeztutako alegazioak (30. or.).</p> <p>Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna (36. or.).</p> |
|---|---|

I. SARRERA

I.1. AGINDUA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2006ko abenduaren 18an eginiko bilkuran erabaki zuen, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak 2006ko abenduaren 14an idatziz eskatuta, Comptos Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin zezan “Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituei buruz (funts publikoak, eginiko kontratuak, esleipen prozedurak, eginiko hitzarmenak)”.

Eskari hori betetzeko, Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2007ko jarduketa programan aipatu fiskalizazio txosten hori sartu zen.

I.2. INFORMAZIO OROKORRA

Hona hemen antolamenduaren eta fiskalizazioaren xede izan diren programa eta jarduerari aplikagarri zaien araudiaren deskribapen laburra.

I.2.1. V. mendeurrenaren antolamendua eta batzordeak

- 1999ko abenduaren 22an eratu zen Nafarroako Gobernuako departamentuarterko batzordea, proiektua abian jartzeko eta 2006an Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena modu egokian ospatzea ahalbidetzeko.

Harrezkero, departamentuarterko batzordea lanean aritu da prestakizunetan, eta oinarri dokumental bat prestatzeaz arduratu da Xabierren izaerari eta haren kokapenari buruz. Halaber, arduratu da jakiteaz departamentu bakoitzak zer egiten zuen edo zer egin zezakeen, zer zegoen egiteke edo zer egin behar zen, definitu eta lortu beharreko helburu zehatzen arabera.

Jarduera horien artean agertzen dira, adibidez, egin beharreko argitalpenen aurreikuspenak, Xabier eta santua izan zen herrialdeak “Gizateriaren ondareko kultura ibilbide” izenda dezaten proposatzeko jarduerak, edota Xabierren egin beharreko lanak abian jartzea.

- 2004ko apirilaren 7an eratu zen V. mendeurrenaren Batzorde Antolatzailea, zeinaren helburua zen Xabierren irudi unibertsala zabaltzea eta Espainiako nahiz beste herrialde batzuetako herri-tarrek Nafarroa eta, zehazki, Xabierko herria bisita zezaten sustatzea. Batzordea eratzeko erabakia 2004ko apirilaren 30eko 52. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Batzorde Antolatzailearen helburu zehatzak hauek izan dira: V. mendeurrenaren parte hartzen duten erakundeek sustatutako ekintzak koordinatzea, berariazko jarduerak antolatzea, elkarrekin ekimenak sustatzea, mendeurrenaren irudi grafiko bateratua kudeatzea, elkarlanerako hitzarmenen sinatzea sustatzea eta mendeurrenaren ohorezko batzorde baten sorrera sustatzea.

Batzorde Antolatzailea osatu dutenak izan dira Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilaria, lehendakari gisa, Artzapezpikutzako ordezkariak, Xabierko santutegiko ordezkariak, Jesusen Konpainiako ordezkariak, Xabierko Udalekoak, Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, eta Nafarroako Gobernuako Turismoko eta Turismoaren Sustapeneko zuzendari nagusia.

Protokoloko eta Argitalpenen Zerbitzuko zuzendariak batzordearen idazkiari gisa jardun du.

Batzorde Antolatzailearen osaera 2005eko urriaren 17an aldatu zen, eta Kulturako eta Komunikazio zuzendari nagusiak sartu ziren.

- Finantzen ikuspuntutik, departamentuarterko batzordeak ez zuen berariazko aurrekontu krediturik. Aldiz, departamentu bakoitzaren aurrekontuen mende zegoen proiektuak gauzatu ahal izateko. 2004. urtera arte, gastuak departamentu bakoitzaren kontusail arruntekin finantzatu ziren.

Batzorde Antolatzailea 2004an hasi zen lanean eta koordinazio eginkizunak zituen, baina ez du izan eskumenik aurrekontuen eta, horrenbestez, V. mendeurrenaren berariazko aurrekontu programaren kudeaketa eta kontrol finantzarioa betetzeko. Departamentu edo zerbitzu bakoitzak bere kontusailak kudeatu ditu, arlo bakoitzean dituen esku-menaren eta arduren arabera.

- Nafarroako Gobernuak, 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren bidez, “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarritzko lerroak onetsi zituen. Halaber, 4.397.144 euroko gehienezko urte anitzeko gastua onetsi zuen 2005 eta 2006 urteetarako eta Kultura Departamentuari esleitu zion aipatu programa betetzea. Erabakiaren eranskinean ageri da 2005eko abenduaren 2tik 2006ko abenduaren 6ra egin beharreko jardueren laburpen bat.

Txosten honetan aztertzen denez, 2005ean eta 2006an erabilitako kredituek 9.937.229 euro egiten dute, 2004an erabilitako 2.973.083 euroez gain.

1.2.2. V. mendeurrenari aplikagarri zaizkion araudia eta erabakiak

Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenari aplikagarri zaion araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

– Administrazio kontratazioaren arloan, Nafarroako administrazioen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, eta dirulaguntzei buruzko ekainaren 9ko 8/1997 eta azaroaren 9ko 11/2005 foru legeak, azterturiko aldiari dagozkionak. Baliagarri zeuden kredituak erabili dira, hein handi batean, transferentziak egiteko eta hirugarrenei lanak edota zerbitzuak betetzeko mandatua emateko.

– 150/2003 Foru Dekretua, Baluarte S.A.-ri egini niko enkarguei dagokienez.

– Aurrekontu eta kudeaketa arloari dagokionez, aztertutako ekitaldiei dagozkien aurrekontuei buruzko legeak, zehazki 2005eko eta 2006ko legeen 24. eta 27. artikulua, hurrenez hurren; izan ere, artikulua horien bidez baimena ematen da “Xabier” izeneko kontusailari egotzi ahal izateko V. mendeurrena ospatzeko beharrezkotzat jotzen diren edozein izaerako lan, inbertsio eta transferentziak, bai eta aipatu mendeurrena dela-eta egiten diren Nafarroari buruzko sustapen-ekintza guztiak ere.

– 8/2003 Foru Legea, hamazortzi kreditu berezi ematekoa, aurrekontuen diru urritasunari aurre egiteko zenbait gastu-kontzeptuetan.

– Lehen aipatutako Nafarroako Gobernuaren erabakiak: 2004ko apirilaren 5koa, zeinaren bidez V. mendeurrenako Batzorde Antolatzailea eratu baitzen; 2005eko azaroaren 3koa, zeinaren bidez onetsi baitziren “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarritzko lerroak; eta 2005eko urriaren 17koa, Batzorde Antolatzailearen osaketa aldatzekoa.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren urtarrilaren 24ko 8/2006 Foru Agindua. Horren bidez, onetsi zen Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko kultura programa.

Txostena lau ataletan banatua dago, eta, horietan, xedeaz eta aplikatutako metodologiak gainera, iritzia, ateratako ondorioak eta emandako gomendioak ere agertzen dira.

Atal horiek hiru eranskinez osatzen dira, eta, horietan, eginiko jardueri buruzko aurrekontu-datuen eta datu ekonomikoen laburpena islatzen da.

Azterketa lana auditore batek eta auditoriako teknikari batek osatutako talde batek egin du, 2007ko martxoaren 26tik ekainaren 15era bitartean. Azken lau asteetan auditoriako beste teknikari bat gehitu zaio taldeari. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu administratiboan, juridikoen eta informatikoen laguntza izan dugu.

Kultura Departamentuko, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiko, Herri Lan Departamentuko eta Gizarte Ongizateko Departamentuko langileei eskerrak ematen dizkiegu txosten hau prestatzean eman diguten laguntzagatik.

II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK.

II.1. XEDEAK

Parlamentuaren eskaria betetzeko eta Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2007. urterako Jarduketa Programan sartu da Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituei buruzko fiskalizazioa.

Eginiko lanak helburu hauek ditu:

- Gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-betetzeak aztertzea, ukitutako kontusailak ekitaldi bakoitzean izandako betetzea aztertzea eta egiaztatzea aurkeztutako kontuek egotzi ahal zaizkien gastu eta dirusarrera guztiak jasotzen dituztela egiaztatzea, aplikagarri zaizkien kontabilitateko printzipio eta arauen arabera, bereziki berariazotasuna eta urtekotasuna.

2005eko eta 2006ko kontusail orokorren sailkapen ekonomikoa lortzea, ahalbidetuko duena zehaztea aurrekontu-kredituak izaera ekonomiko zer gastutarako erabili diren, hornitzaile eta onuradun nagusiak aztertuta.

- Egiaztatzea Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituak kudeatu dituzten zerbitzuen jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkotasun printzipioarekin bat datorrela.

Txostenak lortutako emaitza nagusiak azaltzen ditu, bai eta egokiak jotzen diren gomendioak halako laguntzen kudeaketa hobetze aldera.

II.2. NORAINOKOA

- Fiskalizazioaren xede den aldia 2003 eta 2006 artekoa da, eta, bereziki, 2004ko apirilean V. mendeurrenaren Batzorde Antolatzailea eratu

zenetik aurrerakoa; izan ere, hortik aurrera ospakizunarekin loturiko jarduera eta gastuak Kultura Departamentuko aurrekontuetan islatzen dira.

- Aurrekontuen kudeaketaren erantzukizuna esku hartu duten departamentu eta zerbitzuena da, baina ez dago informazio eta kontrol programa eta sistema bakarra ospakizunek oro har aurrekontuetan izandako eragina neurtzeko. Fiskalizazioan sartu ditugun kontusailak eta gastuak dira, emandako informazioaren arabera, ospakizunarekin berariazko lotura dutenak. Kudeatzaileek 32 kontusail desberdin erabili dituzte 2004tik 2006ra bitartean, eta horietatik hiruk soilik zuten “Xabier” aipamena beren izenetan.

Ez ditugu sartu fiskalizazioan ohiko jardueri buruzko gastuak, ez eta esparru zabalago batean egiten direnenak, V. mendeurrenaren ospakizunak horiengan eragina izan arren. Aipatu salbuespenean sartzen dira ondokoak:

- “Frantzisko Xabierkoaren arrasto unibertsala” izeneko erakusketa, 2005ean Espainiako 12 hiritan egon zena. Urtero, Nafarroako Gobernuak erakusketa bat sustatzen du, Nafarroako zentro edo etxe bat duten Espainiako hiriburuetan barrena ibiltzen dena. 2005ean gai hori aukeratu zen, beste urte batzuetan Nafarroako gastronomia, jaiak, zinea, foru araubidea eta abar aukeratu diren moduan. Nafarroako Kutxa Fundazioak 26.000 euroko ekarpena egin du erakusketa hori finantzatzeko.

- “Vianako Printzea” Kultura Saria emateko ekitaldia, urtero Asturiasko eta Vianako Printzea buru duela Leireko monasterioan egiten dena. 2006an, berriz, V. mendeurrena zela-eta, Xabierren egin zen ekainaren 22an.

- 2005eko maiatzean Aichiko (Japonia) Nazioarteko Erakusketara joatea eta bertan Espainiaren pabiloian egotea Nafarroari eskainitako asteen, eta Nafarroa Japonian ezagutarazteko beste ekitaldi osagarri batzuk. Bertaratu zirenei emandako informazioan Nafarroaren berezko elementuak hartu ziren kontuan (monumentu ondarea, gastronomia, energia berriztagarriak, kirola eta abar), bai eta Xabierrekin eta V. mendeurrenarekin loturiko beste batzuk ere.

- Ez ditugu sartu urtero egiten den Nafarroaren Eguneko ekitaldiei dagozkien 62.500 euroak.

- Xabier eta Zangozako turismo bulegoen gastuak (85.000 euro inguru) foru administrazioko egiturazko gastutzat hartu ditugu eta ez berariaz V.

mendeurrenari egotzi beharrekotzat. Era berean, Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra S.A. enpresak eginiko gastuak (100.000 euro inguru) Xabierren oihaneko zenbait lan egiteko eta zentsu enfiteutikoari dagozkion gastuak, urtero ordaintzen baitira.

- 2005eko abenduaren 5ean Nafarroako Kutxa Fundazioarekin sinatutako hitzarmenean aurreikusten zen entitate horrek bere ardurapean gauzatu zuela “Xabier-Arte” izeneko erakusketa ikonografikoa eta hari zegokion gastua osorik (700.000 euroko balio zenbatetsia) finantzatu zuela.

Fiskalizazioaren lehenengo lanetako bat izan da ezartzea eragile eta kontusail desberdinen artean esleitutako baliabide ekonomikoak, ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, eta hirugarrenei ordaindutako gastuak agertzen dituzten egoera-orri finantzarioak. Eginiko egoera-orri finantzarioak eta jardueren emaitza ekonomikoak txosten honen I., II. eta III. eranskinetan azaltzen dira.

Halaber, V. mendeurrenari buruz eginiko ebaluazioak aztertu ditugu.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko sektore publikoko auditoriako printzipioei eta arauari jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu. Lanean, halaber, beharrekotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu, inguruabarren arabera.

II.3. MUGAK

Gure lanak ondoko mugak izan ditu:

- I., II. eta III. eranskinetan aurkezten ditugun egoera-orri ekonomikoak eta kontuak –fiskalizazioaren xede izan direnak, finantzen arloan– kudeatzaileek emandako informazioan oinarrituta prestatu ditugu. Administrazioaren kontabilitate sistemak ez du ematen zuzenean informazio osoa eta xehaketa, ez baitago kontusail bakar eta berariazkorik V. mendeurrenako programarako. Nabarmendu nahi dugu V. mendeurrenerako kontusailekin finantzatutako eragiketa guztiak ez jasotzeko arriskua badela.

- Kultura Departamentuak 2005ean eta 2006an zituen kontusail garrantzitsuenek ahalbidetzen dute haiei era guztietako gastuak egozte, ekitaldi haietako aurrekontuei buruzko legeei jarraituz. Horrek zaildu egiten du kasuan kasuko kredituekin eginiko gastuen izaera ekonomikoari buruzko informazio zehatza eskuratzea.

III. IRITZIA

Egindako auditoretzaren ondorioz eta kontuan hartuta arestiko atalean zehaztu ditugu azterketaren norainokoa eta mugak, honako iritzi hau atera dugu:

III.1. KONTUSAILAK, AURKEZTUTAKO KONTUAK ETA JARDUEREN EMAITZA EKONOMIKOAK

– Gure balorazioaren arabera, Nafarroako Gobernuak eginiko gastua, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko, 12.910.311 eurokoa izan zen, guztira. Lau izan dira ekitaldi horiek gauzatzearen arduradun zuzen gisa esku hartu duten departamentuak. Ekitaldiak finantzatzeko 32 kontusail desberdin erabili dira, ez baitzegoen V. mendeurrenaren berariazko aurrekontu programarik.

Hirugarren laguntzaileek eginiko ekarpenengatik dirusarrerak 261.846 eurokoak izan dira, eta “Baluarte S.A.” enpresak programaturiko kultur ekitaldietako sarreren salmentagatik lortutakoak, 55.000 euro ingurukoak. Dirusarrera horiek gastu guztien ehuneko 2,45 egiten dute.

– Aitorturiko gastuak birsailkatu ditugu beren izaera ekonomikoa kontuan hartuta, aurrekontu-kredituak zein gastu motatan erabili diren jakite aldera. Horren ondorioz, kontuen aurkezpenak aldaketa ugari ditu aurrekontu-kontabilitatearen arabera eginikoarekin alderatuz gero.

Hala, betetako aurrekontuaren ehuneko 38 bigarren kapituluko ondasun eta zerbitzuen erosketan erabili da (aurrekontu-kontabilitatean, aldiz, ehuneko 9,50), ehuneko 28 seigarren kapituluko obra eta hobetze-lanetan, Xabierren eta bertako sarbideetan, (ehuneko 22,47 izan beharrean), eta ehuneko 34 zazpigarren kapituluko hirugarrenei eginiko kapital transferentzietan (ehuneko 67,58 izan beharrean). Ikusi txosten honetako IV.1 ataleko eta eranskinetako taulak.

Birsailkapena egitea beharrezkoa da, nagusiki, 2005eko eta 2006ko aurrekontuei buruzko legeen 24. eta 27. artikuluen ondorioz, hurrenez hurren, artikuluko horiek baimentzen baitute edozein izaerako gastuak egozte V. mendeurrenako kontusail garrantzitsuenetako biri.

– Kapital transferentzien onuradun nagusiak Batzorde Antolatzailearen erabakien arabera diruz lagunduko diren lan gehienak bete ditu baldintzak –finantzaketarena, kontratista hautatzeari buruzkoak, eta betetze- eta kontrol baldintzak– formalki ezarri eta hitzartu aurretik eta bidezkoak diren kre-

dituak eskuragarri egon aurretik, batez ere 2003 eta 2004 urteetan.

– Nafarroako Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiak onetsi zituen “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarritzko lerroak eta baimendu zuen 4.397.144 euroko gehienezko urte anitzeko gastua, 2005 urtearen (897.144 euro gehienez ere) eta 2006 urtearen (3.500.000 euro gehienez ere) artean banatuta, handitu ahal ziren bi kontusailen kargura.

Egiaztatu dugunez, bi ekitaldi horietan, erabilitako aurrekontu-lerro guztietarako aitorturiko gastuak 9.937.229 euro egiten dute.

– Fiskalizazioaren ondorioz, proposatzen dugu -233.559 euroko doikuntza egiten Kultura Departamentuan. Horren arrazoia da, nagusiki, entitate laguntzaile batengandik lortutako dirusarreraren zati baten itzulketa oker kontabilizatu dela, gastu gisa kontabilizatu baita, eta 49.786 euro, gure ustez V. mendeurrenako kontuetan agertu beharko liratekeen gastuei dagozkienak, Komunikazio Zuzendaritza Nagusian kontabilizatu direla. Departamentu arduradunak 2007ko urriaren 24an eskatu zion aipatu 223.559 euro horien doikuntza Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontabilitate Atalari. Geroago, atal horren arduradunak adierazi zuen, ados egonik ere Comptos Ganberak azaldutako irizpidearekin, ezinezkoa zela eskatutakoa betetzea; izan ere, 2006ko kontuak jada igorri zitzaizkion Nafarroako Gobernuari, eta honek, 2007ko irailaren 10ean, Nafarroako 2006ko kontu orokorre buruzko Foru Lege proiektua onetsi zuen.

– Foru administrazioak, azken ordainketa egin baino lehen, kontrolatu beharko luke BEZaren salbuespenak behar bezala aplikatzen direla gauzatutako proiektuetan, eta ziurtatu beharko luke dirulaguntzen xede diren lanak amaituta daudela eta horien egiaztagiria espedienteetan agertzen direla. Arduradunek zuzendu dute 35.551 euro BEZ bezala oker sartu izana Xabierko gazteluko lanen seigarren ziurtagirian –2004ko maiatzaren 10eko hitzarmena– eta sartu dute 2005ean eginiko enkarguetan eginiko gastuen 3.866,11 euroko gehiegizko kargua.

Aipatu ohartarazpen horiek izan ezik, gure ustez aurkeztu eta fiskalizatu diren kontuak identifikaturiko gastu guztiak jasotzen dituzte eta modu egokian islatzen dute erabilitako aurrekontu-kredituen betetzea.

12.910.312 euroko gastuen ehuneko 81 lau onuradun eta/edo hornitzaileekin konprometitu dira, ondokoen bidez:

a) 4.498.939,36 euroko kapital transferentziak, entitate erlijiozko bati (guztiaren ehuneko 34,80aren balioidea), Xabierko gazteluan lanak egiteko (2.395.738 euro), balio anitzeko ekipamendu erlijiozko-kultural bat eraikitzeko (1.387.500 euro), barneko patioan gune estali bat jartzeko (362.600 euro), eta gaztelurako sarbideak eraberritzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko (350.152 euro).

b) Herri Lan Departamentuaren inbertsioak, 2.961.398 eurokoak (guztiaren ehuneko 23) Xabier inguruko sarbideak hobetzeko lanak kontratatzeko.

c) 1.751.308 euroko enkarguak (guztiaren ehuneko 13,60) sozietate publiko bati, programako kultur ekitaldiak antolatzeko eta Xabierko plazako argiteria publikoa jartzeko. Ekitaldiei buruzko xehetasunak III. eranskinean agertzen dira.

d) Publizitatearen eta komunikazioaren arloko enkarguak, 1.249.704 eurokoak, horretarako hautatutako enpresari (guztiaren ehuneko 9,60).

Gastuei buruzko xehetasunak eta onuradunen eta hornitzaileen arteko banaketa II. eranskinean agertzen da.

III.2. LEGEZKOTASUNA

– Kultura Departamentuak 514/2005 Foru Aginduaren bidez “Baluarte S.A.” sozietate publikoari Xabierko oinezkoentzako gunean argiteria publikoa aldatzeko eta zabaltzeko eginiko enkarguari dagokionez, ez dira bete ekainaren 23ko 150/2003 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak. Hala, enkarguaren xedea ez dator bat sozietate publikoaren helburua osatzen duten gaiekin; izan ere, sozietate horrek berariazko baliabiderik ez duenez, mugatzen da lanak bere osotasunean kontratatzea eta hirugarren bati esleitzera, baina espedientean ez dago jasota sozietate publikoak publizitate, lehia aske eta gardentasunaren printzipioak errespetatu dituenik lizitazioan eta hautaketan. Ez da azaltzen Baluarte emandako berariazko zerbitzuen prezioa ezartzeko erabili den irizpidea.

– Xabierko inguruan Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin eginiko zenbait lanetan, hala nola plazako zoladura aldatzea eta konpontzea, gazteluko sarbideak hobetzea eta oztopo arkitektonikoak ezabatzea, lursailen titulartasunaren auzia planteatzen da, eta, ondorioz, nor den lanak betetzearen eta finantzatzearen erantzule. Jasotako informazioen arabera, Nafarroako Gobernuak, kasu honetan, gazteluko zabalgunearen zati baten gaineko eskubideen titularra den aldetik, lanak zuzenean egiteko ardura hartu beharko zukeen, eta jarduerak udalarekin eta ukitutako gainerako jabeekin koordinatu beharko zituzkeen, zabalgu-

nearen zati baten titularra den entitate erlijiozkoari lanak egiteko dirulaguntza eman beharrean.

– Bi behin-behineko langile, enpresa batek 2005ean, laguntza kontratu batzuk zirela-eta, Kultura Departamentuaren zerbitzura jarri zituenak, “Baluarte S.A.-n” hasi ziren lanean 2006an; hori da, hain zuzen, Gobernuak V. mendeurrenoko ekitaldiak antolatzeko enkargua egin zion sozietatea. Enkargu hori betetzeko, “Baluarte” sozietateak zuzenean kontratatu zituen 2005eko amaieran bi langile horien zerbitzuak aldi baterako laneko enpresa batekin, prestaketaren eta esleipenaren printzipioei jarraitu gabe. Sozietate publiko horrek Kultura Departamentuari igorri dio langile horiei buruzko kostuaren gehi ehuneko 10eko ordainagiria, beste gastu batzuen artean.

– Litekeena da administrazioak esleitutako kontratu batzuen xedea zatikatu izana eta prestazioaren zenbatekoa bere osotasunean zenbatuz gero legokiokeen prozedura ez den beste lizitazio prozedura batzuk baliatu izana. Halaber, antzeman dugu horrela esleitutako prestazioak kontratista berberak eman dituela. Foru administrazioak kontrola indartu beharko luke, aldi horretako eskaeren osotasunari dagozkion prozedura egokiak aplikatzen direla ziurtatzeko eta publizitatearen, lehiaren eta aukera berdintasunaren printzipioak bultzatzeko.

Gure ustez, arestiko lerrokadetan aipatutako salbuespenak alde batera utzita, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak erabilitako aurrekontu-kredituak kudeatu dituzten zerbitzuen jarduera ekonomiko eta finantzarioa bat dator, oro har, legezketasun printzipioarekin.

III.3. FUNTS PUBLIKOEN KUDEAKETAREN ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA

V. mendeurrena dela-eta, Xabierko gazteluan eta haren inguruan eginiko obra eta eraikuntza-lan gehienak Nafarroako Gobernuak finantzatu ditu zuzeneko dirulaguntza izendunen bidez. Kasu jakin batzuetan, dirulaguntza horiek onuradunarekin formalizatu dira hark kasuan kasuko lanak hirugarrenekin kontratatu eta zenbait hilabetetara eginiko ebazpen eta hitzarmenen bidez. Eginiko obrak dirulaguntzen bidez ordaindu dira neurri handi batean.

Halaber, foru administrazioak aurrekontu-lerro asko erabili ditu, ospakizun horren aipamenik egiten ez zutenak, V. mendeurrenaren ekitaldiak finantzatzeko.

Aitorturik ere foru administrazioak ahalmena duela lan horiei erabilitako sustapen-teknikaren

bidez ekiteko, uste dugu, ikusirik eginiko jardueren garrantzia, eginiko lanen kostu osoa kontuan hartuta dirulaguntzek egin duten ehuneko handia eta departamentu desberdinek erabilitako aurrekontu-lerro kopuru handia, egokiagoa izanen litzatekeela, erabilitako funts publikoen kudeaketa eta kontrola hobetze aldera, foru administrazioaren inplikazioa handiagoa izatea obren plangintzan, jarraipenean eta kontrolean, eta jarduera, obra eta kultur ekitaldi guztiak kudeatzea, berariazko xede eta adierazleak dituen aurrekontu-programa baten bidez.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Kontuan harturik egindako lanaren norainokoa eta mugak, ondotik ematen dira ateratako ondorio nagusiak, bai eta kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun proposamenak ere.

IV.1. 2003-2006 ALDIAN EGINIKO GASTUAK

– 2003-2006 aldian, erabilitako aurrekontu-kredituek –fiskalizazioaren xede izan direnak–, guztira, 12.910.311 euro egin zuten, galdetutako iturriek emandako informazioaren arabera.

Ondoko taulan agertzen da kostu osoaren banaketa, departamentu edo zerbitzu kudeatzaileen eta kapitulu ekonomikoen arabera:

Gastuak						
Departamentua Zerbitzua	Kapitulu ekonomikoa	Kontabilizatua	Birsailkatuak	Doikuntzak	Zuzendua, guztira	Guztiaren %
Gizarte Ongizate Dep., guztira	4.- Transferentzia arruntak	60.000	60.000		60.000	4,64%
Kultura						
	2.- Ondasunen eta zerbitzuen gastuak	246.723	3.813.608	-11.994	3.801.614	
	6.- Inbertsio errealak		617.921		617.921	
	7.- Kapital transferentziak	8.849.297	4.664.490	-221.565	4.442.925	
Kultura, guztira		9.096.020	9.096.019	-233.559	8.862.460	68,56%
Herri Lan Dep, guztia	6.- Inbertsio errealak	2.941.974	2.941.974		2.941.974	22,76%
Komunikazio Zuz. Nagusia, guztira	2.- Ondasunen eta zerbitzuen gastuak	996.091	996.091	49.786	1.045.877	8,21%
Guztira, oro har		13.094.085	13.094.084	-183.773	12.910.311	100%

Lau izan dira V. mendeurreneko aurrekontu-kredituak kudeatu dituzten departamentuak/zerbitzuak. Hogei aurrekontu-proiektu eta 32 kontusail desberdin erabili dituzte (bat Gizarte Ongizateko Departamentuak, bederatzi Kulturakoak, bi Herri Lan Departamentuak eta hogeit hamar Komunikazio Zerbitzuak).

Gizarte Ongizateko Departamentuak 90.200 euroko dirulaguntza eman dio fundazio bati eta 60.000 euro ordaindu dizkio. Fiskalizazioaren egunean, dirulaguntza itxi eta likidatu gabe zegoen.

Kultura Departamentuak gastatutako guztiaren ehuneko 68,56 kudeatu du, 8.862.460 euroko zenbatekoa egiten duena. Kapitulu garrantzitsuenak dira ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketen gastuei dagozkienak eta gazteluko obrak finantzatzeko kapital transferentziei dagozkienak; horien zenbatekoak 3.801.614 euro eta 4.442.925 euro dira, hurrenez hurren.

Herri Lan Departamentuak 2.941.974 euro inbertitu ditu Xabier inguruko sarbideetan, eta horrek zenbateko osoaren ehuneko 22,97 egiten du.

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak 1.045.877 euro gastatu ditu publizitatean, protokolo zereginean, argitalpenetan, erakusketetan eta kongresuetan.

– Baloratze aldera zer motako gastuetan erabili diren aurrekontu-kredituak, aitortutako gastuak birsailkatu ditugu; izan ere, badira bi kontusail –“Xabierko balio anitzeko zentroa” eta “Xabier 2006” izenekoak–, zeinetan kudeatzaileek izaera desberdineko gastuak egotzi ahal zizkioten kontusail berari.

Ondoko taulan agertzen da fiskalizazioaren emaitza, proposaturiko birsailkapena eta doikuntzak kontuan hartuta:

Kapitulu ekonomikoa	Departamentua Zerbitzua	Gastuak				Zuzendua/ Kontabilitatea Aldea, %
		Kontabilizatua	Birsailkatuak	Doikuntzak	Guztira zuzendua	
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak						
	Kultura	246.723	3.813.608	-11.994	3.801.614	
	Komunikazioak	996.091	996.091	49.786	1.045.877	
2. kapitulua, guztira		1.242.814	4.809.699	37.792	4.847.491	290,04%
4. Transferentzia arruntak						
4. kapitulua, guztira	Gizarte Ongizatea	60.000	60.000		60.000	0,00%
6.- Inbertsio errealeak						
	Kultura		617.921		617.921	
	Herri Lanak	2.941.974	2.941.974		2.941.974	
6. kapitulua, guztira		2.941.974	3.559.895		3.559.895	21,00%
7. Kapital transferentziak						
7. kapitulua, guztira	Kultura	8.849.297	4.664.490	-221.565	4.442.925	-49,79%
Guztira, oro har		13.094.085	13.094.084	-183.773	12.910.311	

– Zertan gastatu den:

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntek 4.847.491 euro egiten dute, eta horrek gastu osoaren ehuneko 38 egiten du. Doikuntzak eta kontabilitatearen birsailkapenak hasierako zenbatekoaren ehuneko 290eko handitzea dakarte.

Inbertsio errealei dagokienez, zuzenean edo Baluarte S.A.-ri eginiko enkarguen bidez gauzaturako obren zenbatekoak 3.559.895 euro egiten du, eta hori gastu osoaren ehuneko 28 da. Birsailkapenak, Kultura Departamentuak aurkeztutako gastuei eragiten dienak, ehuneko 21eko aldea dakar gastuetan.

Kapital transferentziei dagokienez, nagusiki Xabierko gazteluan eta haren inguruan eginiko obra eta instalazioetarako dirulaguntzak dira, eta 4.442.925 euroko gastua eragin dute. Doikuntzak eta kontabilitatearen birsailkapenak hasierako zenbatekoaren ehuneko -49,79ko murrizketa dakarte.

– Nortzuk izan diren onuradunak eta hornitzaileak:

Erabilitako kredituen ehuneko 90 18 entitate eta/edo enpresari dagozkie. Ehuneko 81 lau entitatek fakturatu dute.

II. eranskinean agertzen da V. mendeurrenaren gastuen xehetasuna departamentuen, kontusailen eta kontzeptu ekonomikoen arabera, bai eta administrazioak emandako onuradunen eta hornitzaileen zerrenda ere. Onuradunen eta hornitzaileen zerrendan sartu ditugu 5.000 eurotik gorako zenbatekoak aurkeztu dituztenak. Fakturatutako guztien ehuneko 98 egiten dute.

Gure iritzian, mendeurrenako ekitaldiekin berriazko loturarik ez duten aurrekontu-lerroak erabilzitez, eta, horrekin batera, ez izateak aipatu ekital-

di guztiak jasotzen zituen programa orokor bakarra, non lortu beharreko helburuak eta beharrezkoak ziren baliabide ekonomikoak agertzen baitziren, zailagoa egin du V. mendeurrenako ekintzen eta horien emaitzen fiskalizazioa eta jarraipena egitea.

Hona gomendioak:

– *Foru administrazioak kontuan hartu beharko luke beharrezkoa dela ekitaldi handiak programa bakar gisa antolatzea, neur daitezkeen berriazko helburuak dituen, koordinazio, kudeaketa, kontrol eta ebaluazio mekanismo egokiak ezartzea.*

V. mendeurrenkoa bezalako ekitaldi edo proiektu garrantzitsuen aurrekontuak, urte anitzeko iraupena dutenak eta zeinetan departamentu batek baino gehiagok esku hartzen baitute, ondo identifikatutako programa berriazkotzat hartu beharko liriteke aurrekontu desberdinetan, bai esku hartzen duten zerbitzuei dagokienez, bai izaera-sailkapen ekonomikoari eta xedeari dagokienez, aurreikusitako emaitzak eta kudeaketaren kontrola lortu ahal izateko.

– *Berriazko helburuak eta emaitzei eta eraginari buruzko adierazleak zehaztu behar dira, eta programa horiek arduradun bakoitzak garatu beharreko helburu eta ekintza zehatzen arabera zenbatesitako aurrekontu-kredituz hornitu behar dira.*

Programa baten erabilera koordinazioa eta kontrola erraztuko lituzke, bai eta gastuak beren izaera ekonomikoa ere kontuan hartuta egozte, eta, hala, kontabilitate/aurrekontu sistemak informazio zehatza emango luke, jakin ahal izateko nork eta zertan gastatu duen.

Ondoren gastuen betetzea aztertuko dugu, departamentuen, aurrekontuen eta ekitaldien arabera.

IV.2. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

452000-42230-6020-452103 kontusaila, "Xabierko plan zuzendaria" izeneko (2003ko ekitaldia)

Kreditu bateratua	Aitorturiko betebeharrak
901.520 €	Batere ez.

Otsailaren 24ko 8/2003 Foru Legearen bidez, 901.520 euroko kreditu berezia onetsi zen "Xabierko plan zuzendaria. Haren monumentuaren egokitze-lanak eta V. mendeurreneko ekitaldiak" izeneko kontusailerako.

Kontusail hori ez zen erabili; izan ere, Xabierko gazteluaren jabe den entitate erlijiozkoak bertan egiten ari zen lanak diruz laguntzeko xedea zuen kreditu bereziaren aurrekontu-esleipena ez zen egokia izan. Dirulaguntza bat zenez, kapital transferentziei buruzko VII. kapituluko kontusail bat erabili behar zen. Baina kredituak berariazko inbertsioei buruzko VI. kapituluan jasota zeuden; beraz, ezin zitezkeen erabili, aurrekontuei buruzko legezko eskakizunak direla eta.

Halaber, kapitulu ekonomikoa ez zen aldatu kreditua erabili ahal izateko izan ere, Ogasunak 2003an jarraibideak eman zituen kredituak gordezko, beharrian saihestezinei aplikatze aldera.

Laburbilduz, kredituak erabili ezinik gertu ziren "Xabier" kontusailerako.

Horren eraginez, onuraduna dirulaguntza jasoko duten lanak egiten ari da, baina finantzaketari, lanak betetzeari eta kontrolari buruzko baldintzak era formalean ezarri gabe eta bidezkoak diren kredituak erabilgarri izan gabe.

Hezkuntzan 2003an kontsignaturiko zenbatekoa Kulturako 2004ko aurrekontuei gehitu zitzaizkien; hain zuzen, gastuei buruzko VII. kapituluan, Ekonomia eta Aurrekontu Politikako zuzendari nagusiaren martxoaren 2eko 15/2004 Ebazpenaren bidez.

Hona gomendioak:

Programazio eta koordinazioa bultzatu behar dira proiektuen finantzaketari eta betetzeari dagokionez, ziurtatze aldera diruz lagundutako lanak abian jarri aurretik zehazturiko helburu eta baldintzen arabera egiten direla, bai eta kredituen erabilgarritasunari eta kontrolari buruzko betekizunak errespetatzen direla ere, lanak betetzeko baime-netik hasita lanen justifikazio eta ordainketara arte.

IV.3. VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA

IV.3.1 "Xabierko plan zuzendaria" izeneko kontusaila (2004ko ekitaldia)

Hasierako kreditua	Sartutakoa	Bateratua	Aitorturiko betebeharrak
2.050.000	901.520	2.951.520	2.951.000

Kontusailean ondoko hiru laguntzak kontabilitatu dira:

Proiektua	Aitorturiko betebeharrak
Xabierko gazteluko obrak –Jesusen Lagundiarekiko hitzarmena–	2.395.738,00
Balio anitzeko eraikina –Jesusen Lagundiarekiko hitzarmena–	451.000,00
Xabierko elizako obrak –dirulaguntza Iruñeko Artzapezpikutzari– 101/2004 Ebazpena, maiatzaren 18koa	104.262,00
Aitorturiko betebeharrak, guztira	2.951.000,00

A) Entitate erlijiozkoari emandako dirulaguntza, 2.395.738 eurokoa, interes kulturalako ondasun gisa deklaraturako Xabierko gazteluko zaintza, zaharberritze eta egokitze lanak egiteko.

Ohartarazpen orokor bat egin nahi dugu: Jesusen Lagundiari V. mendeurrena dela-eta emandako dirulaguntzak ohiz kanpokoak dira, 8/1997 Foru Legearen 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; izan ere, foru lege horretan baimena ematen da laguntzak zuzenean emateko, publizitatearen eta lehia-
ren printzipioak aplikatu beharrik gabe.

Aipatu dirulaguntza hitzarmen baten bidez formalizatu da. Hitzarmen hori 2004ko ekainaren 2an sinatu zen eta indarrean da 2004ko abenduaren 31z geroztik.

Nafarroako Gobernuaren finantzaketak aurreikusitako kostuaren -3.691.628 euro- egiten du. Obrak onuradunaren enkarguz idatzitako bi proiektutan jasota daude. Lehen proiektua dagokio atzeko edo iparraldeko poligonoaren zaharberritzeari eta egokitzeari eta Undués dorrearen lehengoratzeari. Bigarrena, berriz, gazteluaren muinari dagokio, zeina dorreak eta hura hegoaldeetik inguratzen duten eraikinek osatzen baitute, Kristoren Kaperak besteak beste.

Enpresa zuzenean kontratatu zuen onuradunak.

Kontratatistak 16 ziurtagiri aurkeztu ditu, eta horietatik bederatzia hitzarmena sinatu aurretik eginiko lanei dagozkie. Ordainagiri horietatik bost dira hitzarmena indarrean sartu aurretik eginiko lanei buruzkoak, hau da, 2004ko urtarrilaren 1a baino lehenago eginikoei buruzkoak. Hitzarmena atzera-eraginezko ondorioekin aplikatu da, hein batean IV.2 idatz-zatian aipaturiko inguruabarrak tarteko; izan ere, 2003ko aurrekontu-kredituak ez ziren erabilgarriak.

Obra BEZa ordaintzetik salbuetsita dago Ogasuneko arduradunaren 2003ko maiatzaren 20ko ebazpenaren bidez. Hala ere, seigarren ziurtagiri-
an BEZa ere jasotzen da -35.551,05 euro-, eta horiek ez ziren kofinantzatu behar. Arduradunek azaldu digutenez, seigarren ziurtagiriaren BEZa zuzendu dute, bai eta kargaturako gehiegizko gas-
tuen zenbatekoa ere.

B) 451.000 euroko dirulaguntza, erlijio-entitate-
ari emandakoa Xabierren balio anitzeko ekipa-
mentu erlijiozko-kulturala egiteko.

Nafarroako Gobernuak, 2004ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez, baimendu zuen dirula-
guntza ematea Xabierren balio anitzeko ekipa-
mentu erlijiozko-kulturala egiteko eta 1.387.500
euroko gastua baimendu zuen, bi urtetan ordain-
tzeko:

2004. urtean: 451.000 euro, "Xabierko plan
zuzendaria" izeneko kontusailaren kargura.

2005. urtean: 936.500 euro, 2005erako gaitzen
den kontusailaren kargura. Ikusi 4.3.2.A) idatz-zati-
ko iruzkinak 2005eko "Xabierko balio anitzeko
zentroa" kontusailari buruz.

Dirulaguntza 2004ko azaroaren 3an sinatutako
hitzarmenaren bidez formalizatu zen, arestian
aipatu baimena eman zenetik bost hilabetera, toki-
aren erabilerari buruzko negoziazioak amaitu gabe
baitzeuden.

Hitzarturiko laguntzak aurreikusitako kostu
osoaren -1.850.000 euro- ehuneko 75 egiten du.

- Hitzarmenaren zazpigarren puntuan aurreiku-
sitako auditoriako txostena 2007ko irailaren 7an
egin zen.

- Zortzigarren klausulak ezartzen duenez, onu-
radunak konpromisoa hartzen du eraikina foru
administrazioaren eskura uzteko, hitzarmen parti-
kular baten bidez. Hitzarmen horretan arautuko da
Nafarroako Gobernuak eman ahalko dion erabile-
ra, betiere erlijioarekin, kulturarekin eta turismoa-
rekin zerikusia duten jardueren esparruan, xede
horrekin eraiki baitzen. Hitzarmena 2007ko maia-
tzaren 2an sinatu zen.

- Onuradunak zuzenean kontratatu zuen pro-
iektua egin zuen enpresa.

C) 104.262,00 euroko dirulaguntza, Xabierko
eliza zaharberritzeko.

Dirulaguntza 2004ko maiatzaren 18ko
101/2004 Ebazpenaren bidez eman zen.

**IV.3.2 "Xabierko balio anitzeko zentroa" ize-
neko kontusaila (2005eko ekitaldia)**

Hasierako kreditua	Bateratua	Aitorturiko betebeharrak
2.140.000	2.140.000	2.058.226

Hona hemen kontusailaren gainean eginiko fiskalizazioaren emaitzei buruzko iruzkinak:

A) Balio anitzeko ekipamendu erlijiozko-kultural bat eraikitzea.

Aurreko B) idatz-zatian aipatu bezala, 2005ean "Xabierko balio anitzeko zentroa" izeneko kontusaila 936.500 euro erabili ziren, Xabierren balio anitzeko ekipamendu erlijiozko-kultural bat egiteko guztira eman ziren 1.387.500 eurotatik.

Lehen aipatu dugu 2004an proiektu horri 451.000 euro esleitu zitzaizkiola, "Xabierko plan zuzendaria" kontusailaren kargura, "Kultur Ondarea" izeneko programaren barruan. Ondare Historikoaren Zerbitzuak proiektuaren betetzeari buruzko txostenak eta ikuskapenak egiten ditu.

2005ean, erabilitako kontusailak "Xabierko balio anitzeko zentroa" izena zuen, "Kultura sustapena" izeneko programaren barne zegoen eta Kultur Ekintza Zerbitzuak kudeatu zuen. Zerbitzu honek, arkituektorik ez zuenez plantillan, kanpoko zerbitzuak kontratatu zituen obra-betetzeari buruzko informazio teknikoaren eta ziurtagirien eginkizunak betetze aldera. Ordainsariek 4.547 euro egin zuten. Ez dago justifikatuta erantzukizun teknikoari buruzko zerbitzuan aldaketak egiteko beharra erdi beteta dagoen espediente batean, arduradun berriak ez duenean jarraipen- eta informazio-baliabide berriazkorik.

B) "Erromesak hartzeko zentroko" lanei emandako dirulaguntza

180.000 euroko dirulaguntza, Xabiartik Esara doan errepide ondoan dagoen misioetako eraikina erromesak hartzeko zentro bihurtzeko.

Dirulaguntza bideratu zen 2005eko azaroaren 15ean erlijio-entitatearekin sinatu zen hitzarmenaren bidez.

Finantzaketak aurreikusitako kostu osoaren -360.000 euro- ehuneko 50 egiten du.

Onuradunak zuzenean hautatu zuen proiektua egin zuen enpresa.

- Harrera zentroa ez zegoen erabilgarri 2005eko abenduaren 1ean, hitzarmenaren hirugarren klausulak aurreikusten zuen moduan, lanak 2006ko martxoan amaitu baitziren.

Dirulaguntza osoa ordaindu zen lehen ziurtagiria jaso ondoren, 2005eko abenduaren 30ean, dirulaguntzaren xede ziren lanak amaitu gabe zire-

la. Aldez aurretik, Kultur Ekintza Zerbitzuak horrekiko adostasunari buruzko txostena egin zuen.

C) "Xabierko oinezkoentzako gunean argiteria publikoa aldatu eta zabaltzea" - Enkargua

Azaroaren 22ko 514/2005 Foru Aginduaren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak "Baluarte S.A." sozietate publikoari eman zion Xabierko gazteluaren inguruko oinezkoentzako gunean argiteria publikoa aldatu eta zabaltzeko enkargua, eta horretarako 178.133 euroko gehienezko gastua onetsi zuen.

Azaroaren 22an ere enkargua arautzen duen hitzarmena sinatu zuen. Bertan ezarri zenez, lanak 2005eko abenduaren 2a baino lehenago amaitu behar ziren.

Prozesuan, ez dira jarraitu enkarguak arautzen dituen ekainaren 23ko 150/2003 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak. Hona hemen baldintzak:

a) Enkarguaren xedea ez dator bat sozietate publikoaren helburua osatzen duten gaiekin.

b) Baluarte mugatzen da lanak kontratatuzera eta hirugarren bati esleitzera; hori dela eta, enkargua egitea justifikatuko lukeen arrazoia falta da; alegia, erabilitako entitate instrumentalak badituela enkargua betetzeko beharrezkoak diren baliabide eta zerbitzu teknikoak egokiak.

c) Espedientean ez dago jasota sozietateak obrak egiteko eskaintzak eskatu izana enpresa desberdinei, ez eta publizitate, lehia aske eta garrantasunaren printzipioak errespetatu dituenik ere. Enkarguaren betetze-epeak ezinezkoa egiten du legeak ezarritako epeak errespetatzea.

d) Enkarguak bere prezio osoa ezartzen du, baina ez da azaltzen Baluarte emandako berriazko zerbitzuen prezioa ezartzeko erabili den irizpidea. Sozietateak 13.960 euro fakturatu ditu kontzeptu honengatik; hau da, aurrekontuaren ehuneko 10.

Gure iritzian, enkargua Baluarte S.A. sozietateari eman zitzaion mendeurrenaren urtea hastear zegoela argiteriaren beharra eta premia ikusi zelako eta uste izan zelako sozietateak lan horiek egitea erraz zezakeela.

Baluartek aurkeztutako azken faktura enkargua eginiko aurrekontua baino txikiagoa da, baina justifikatutako gastuak baino 5.810 euro handiagoa da, Baluarte emandako zerbitzuengatik kargatutako ehuneko 10a barne ⁽¹⁾. Baluarte ziurtatu

(1) "Baluartek" dioenez, ehuneko 10 aplikatuz gero 2005ean eginiko enkarguei, gehiegizko kargua guztira 3.866,11 eurokoa izanen litzateke.

digu 2007ko abenduaren 20an itzuli zuela 2005ean eginiko enkarguengatik kargatutako gehiegizko gastua -3.866,11 euro-.

D) 2005eko Nafarroaren Eguneko kontzertua eta otamena antolatzea - Enkargua

Azaroaren 22ko 513/2005 Foru Aginduaren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak "Xabier 2006. Kultura unibertsalaren topaketa" izeneko programako zenbait ekitaldi egiteko enkargua eman zion "Baluarte S.A." sozietateari eta horretarako hitzarmena sinatu zuten. 103.015 euroko gastua onetsi zen 2005eko abenduaren 3an kongresu jauregian eta abenduaren 4an Madrilan egien ziren kontzertuetarako eta Xabierren egin beharreko otamenerako.

Enkarguaren gastua ondoko kontusailen kargura banatu zen:

- 40.515 euro, "Xabierko balio anitzeko zentroa" izeneko kontusailaren kargura.

- 62.500 euro "Nafarroako Egunaren Ospakizuna" izeneko kontusailaren kargura. V. mendeurreneko berariazko gastuak kalkulatzeko aldera, ez dugu sartu 62.500 euroko zenbateko hori, gure ustez urtero egiten diren Nafarroako Eguneko ospakizunei baitagokie.

Egotzitako gastuen artean, agertzen dira 18.000 otamenagatik eta 66.627 euro kontratatutako orkestraren gastuengatik.

Baluartek 6.662 euro fakturatu ditu bere zerbitzuengatik. Ez da azaltzen Baluartek emandako berariazko zerbitzuen prezioa ezartzeko erabili den irizpidea.

E) Dirulaguntza, Xabierko espiritualtasun zentrotako barneko patioan gune estali bat jartzeko eta basilikako plazako zoladura jartzeko.

Azaroaren 15eko 506/2005 Foru Aginduaren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak dirulaguntza eman zuen Xabierko espiritualtasun zentrotako barneko patioan gune estali bat jartzeko eta basilikako plazako zoladura jartzeko. Onetsitako gastua 362.600 eurokoa izan zen.

Dirulaguntza bideratu zen 2005eko azaroaren 16an erlijio-entitatearekin sinatu zen hitzarmenaren bidez. Lanak 2005eko abenduaren 1a baino lehen amaitu behar ziren.

Hitzarmenak ez du zehazten dirulaguntzak hasierako kostu osoaren zer ehuneko egiten duen. Aurekzturiko ordainagirietako informazio oinarritzat hartuta, amaierako kostua 392.673

eurokoa izan da eta dirulaguntzak -362.600 euro-ehuneko 92 egin du.

Enpresak zuzenean kontratatu zituen onuradunak.

Gazteluaren inguruan egindako obrei dagokienez, hala nola plazako zoladura aldatzea eta konpontzea, lursailen titulartasunaren auzia sortu zen, eta, horren ondorioz, lanak egiteko eta finantzatzeko eta beharrezkoak ziren prozedurak aplikatzeko erantzukizuna nork zuen erabakitzekoa.

Bai onuradunak bai foru administrazioa bat datoz esaterakoan "gazteluko zabalgunean" egin beharreko obrek ukitzen dituzten lursailak ez direla onuradunaren jabetzakoak, zatiren bat izan ezik. Zatik handiena Nafarroako Gobernuarena da, zuzeneko titular gisa edota Foru Diputazioaren eta hasierako jabea zen familiaren artean sinatutako enfiteusi-kontratuaren ondoriozko lagapena dela eta.

2005eko urriaren 11n, onuradunak onartu zuen, Nafarroako Gobernuak eskatuta, basilikarako sarbidea hobetzeko beharrezkoak ziren lanen ardura hartzea, alegia gazteluaren ondoko plazako zoladura aldatzeko eta konpontzeko lanena, eta obrak egiteko baimena eskatu zion udalari. Obren aurrekontua 190.636,28 eurokoa zen.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuak, gazteluko zabalgunearen zati baten gaineko eskubideen titularrak den aldetik, lanak zuzenean egiteko ardura hartu behar du zuzenean eta jarduerak udalarekin eta ukitutako gainerako jabeekin koordinatu behar du zituzkeen, hirugarren bati dirulaguntza eman beharrean. Erabilitako formula, hirugarrena bati dirulaguntza ematearena obran egin ditzan gehienbat titulartasun publikokoa den toki batean, ez dago justifikatuta.

F) Sozietate pribatu batekin kontratua egitea, V. mendeurrena ospatzeko programaren exekuzio teknikorako beharrezkoak diren jarduerak guztiak egin ditzan, eta ondoren "Baluarte" sozietateari enkargua ematea kultur ekitaldiak antola ditzan.

- Enpresa pribatu esleipendunarekin eginiko kontratua 2005eko abuztuaren 1ekoa da eta aipaturiko xedea du. 12.000 euroko prezioa du eta iraupena, berriz, 5 hilabetekoa, 2005eko abuztuaren 5etik abenduaren 31ra, hain zuzen.

Kultura Departamentuak zuzenean esleitu zuen prestazioa. 13.102 euro ordaindu zizkion enpresa pribatu bati V. mendeurrenaren gastuen barruan.

Kontratua 2005eko abuztuaren 1ean sinatu zen, gastua baimendu zuen irailaren 13ko ebazpena eman aurretik.

Praktikan, kontua datza pertsona bat administrazioaren zerbitzura jartzean, bitartekari den enpresa pribatuarekiko kontratazioarekin bidez.

- 2006an, ondoko puntuak ere aipagarriak dira, V. mendeurrena kudeatzeko eta antolatzeko beharrezkoak diren langileak kontratatzearekin lotuta:

Lehen aipatu pertsona, beste aldi baterako kontratatu batekin eta funtzionario koordinatzailearekin batera, V. mendeurrenerako lanean aritu ziren 2006an, Baluarte sozietate publikoan. Aldi baterako bi kontratatuak, Baluarte aldi baterako laneko enpresa batekin eginiko kontratu baten bidez, eta koordinatzailea “zerbitzu berezietako” egoeran.

2005eko abendura arte funtzionarioak ez zuen lortu “Xabierko jardueren koordinatzaile” izendapena, baina horrek ez zuen ekarri doikuntzarik Kultura Departamentuak 2005eko apirilean proposaturiko eta eskaturiko lansari osagarrietan.

“Baluarte S.A.” sozietateak langileak behar ditu V. mendeurrenaren antolamenduari buruzko enkargua betetzeko. Ikusi iruzkinak txosten honen 4.3.5 “A” atalean.

Arestian aipatu beharra ikusirik eta kontuan hartuta komenigarria zela pertsona horiek jada lanean ari zirela V. mendeurreneko ekitaldiak antolatzen eta komenigarria zela beren administrazio egoera erregularizatzea, Baluarte enpresak koordinatzailea –zerbitzu berezietako egoerara pasa zen– eta aldi baterako bi langileak kontratatu zituen.

Langile horien kostua 120.708 euroko izan zen, eta zenbateko horretan sartuta dago sozietate publikoak kargaturiko ehuneko hamarreko marjina –12.071 euro–. Espedientean ez dago behar bezala justifikatuta langile horiei V. mendeurreneko lanak egiteko enkargua betetzeko eraginkortasun-arrazoia; izan ere, Kulturen lan egiten zuten hiru pertsonak “Baluarte S.A.” enpresara joan ziren, kostu handiagoarekin, lan berbera egitera.

Aldi baterako bi langileak kontratatzeko, sozietate publikoak zuzenean negoziatu du enpresa bitartekariarekin. Ohartu gara ez direla jarraitu aldi baterako lan enpresei dagokienez eskatzen diren prestaketaren eta esleipenaren printzipioak eta prozedurak.

IV.3.3 “Proiektuak, ikerketak eta dokumentazioa”, “Arkitektura ondarearen zabalkuntza” (2005) eta “Xabierko Frantziskoren kultura ibilbidea” (2006) kontusailak

A) Laguntza teknikorako kontratua, “Xabierko Frantziskoren kultura ibilbidea” idazteko

Ibilbidea idazteko lana proiektu bakarra osatzen duten hiru bloketan egin zen.

“Kultur ibilbidea” prestatzeko lehen kontratua esleitzeko, eskaintzak eskatu zitzaizkien hiru enpresari, baina horietatik bik ez zuten ezer aurkeztu.

2005eko otsailaren 25ean, kontratua hautagai bakarrari esleitu zitzaion, 20.900 eurogatik. 2005eko azaroaren 30ean, hasierako kontratua aldatu egin zen eta kontratu osagarri bat gehitu zitzaion, 7.100 eurogatik, hau da, ehuneko 34 gehiago.

2006ko uztailaren 4an, proiektu bera sustatzeko hirugarren kontratua onetsi zen. Kontratua esleipendun berarekin sinatu zen, 10.500 eurongatik.

Gure ustez, sinatutako kontratuak proiektu eta merkatu berari dagozkie, eta, hori dela eta, hasieratik jarraitu behar ziren zenbatekoaren araberrako prozedurak, beharrezkoa den publizitatea eta lehia bermatuko zutenak. Izan ere, esleitutako zenbateko osoak –38.500 euro– gauditu egiten du Administrazioari buruzko 10/1998 Foru Legearen 80.5 artikulua ezartzen duen 30.051 euroko muga.

Espedienteko gastuak hiru kontusail desberdinei egotzi zaizkie; horietatik bi 2005eko ekitaldikoak dira eta bestea 2006koa. 2006ra arte ez zen sortu “Xabierko Frantziskoren kultura ibilbidea A20001 A2100 2276 337100” izeneko kontusail berezia. Kontusail hori agertzen da ere 2007ko aurrekontuetan, 80.000 euroko hasierako kontsignazioarekin.

B) Nafarroako Kutxa fundazioarekin eginiko hitzarmena, boluntario kidego bat antolatzeko.

– Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak lankidetzat hitzarmena onetsi zuen, abenduaren 2ko 521/2005 Foru Aginduren bidez. Honako klausulak aipatu behar ditugu:

a) Kontratatu beharreko boluntario kopuru gutxi gorabeherakoa 200 pertsonakoa da. Pertsona horiek laguntza emango dute 2005eko abenduaren 3tik 2006ko abenduaren 3ra izanen diren ekitaldietan.

b) Nafarroako Kutxa fundazioak 300.000 euroko ekarpena eginen du. Zenbateko hori 2006ko apirilaren 30a baino lehen ordainduko da.

c) Fundazioari publizitatea emanen zaio boluntarioen jantzetan eta web orrian, eta baimena emanen zaio "Xabier 2006" ikur grafiko erregistratua erabili ahal izateko.

d) Jarraipen batzorde bat sortu zen, alderdi sinatzaileen ordezkari banaz osatua.

- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren abenduaren 29ko 522/2006 Foru Aginduaren bidez, sinaturiko hitzarmena likidatu zen. 221.565,12 euroko gastua baimendu eta xedatu zen, "Xabier 2006" kontusailaren kargura Nafarroako Kutxa fundazioari ordaindu beharrekoak.

Hona hemen gastuen likidazioa:

Urtea	Jarraipen batzordeak aurkeztua, eurotan	Kontabilizatua baina erabili gabea, eurotan
2005	23.944,21	
2006	54.490,67	221.565,12
Guztira		300.000

Foru administrazioak 78.435 euroko gastuak justifikatu ditu "Xabierko boluntarioen kidegoaren" antolamendua dela eta. Gastu horrek aurreikusitako 300.000 euroen ehuneko 26 egiten du. Erabili gabeko gainerako 221.565 euroak fundazioari itzultzea erabaki zuen, jarraipen batzordearen proposamenari jarraikiz. Hitzarmenean ez zen ezer aipatzen itzulketa egiteko bete behar ziren baldintzei buruz.

Itzulketa-eragiketa gasturako baimen baten bidez egin zen, eta bai gastua bai ordainketa 2006ko kontusailean kontabilizatu ziren. Gure ustez, ez da gastu handiago, dirusarrera txikiagoa

baizik, eta, hori dela eta, eragiketa erregularizatu beharko litzateke, kontabilitateak egitate ekonomikoaren errealitatea isla dezan. Kultura Departamentuak adierazi digunez, 2007ko urriaren 24an eskatu zuen kontabilitatearen doikuntza. Ondoren, Kontabilitate Ataleko arduradunak adierazi zuen, ados egonik ere Comptos Ganberak azaldutako irizpidearekin, ezinezkoa zela eskatutakoa betetzea; izan ere, 2006ko kontuak jada igorri zitzaizkion Nafarroako Gobernuari, eta honek, 2007ko irailaren 10ean, Nafarroako 2006ko kontu orokorre buruzko Foru Lege proiektua onetsi zuen.

IV.3.4 "Xabier 2006" kontusaila (2006)

Hasierako kreditua	Handitzea	Bateratua	Aitorturiko betebeharrak
3.500.000	670.152	4.170.152	3.618.505

A) V. mendeurreneko kultur programako ekitaldiak egiteko lanak - Enkargua

– Otsailaren 15eko 38/2006 Foru Aginduaren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak 1.926.870 euroko gehienezko gastua baimendu zuen, lanak "Baluarte S.A." sozietateari eman zizkion eta enkargua arautzen zuen hitzarmena onetsi zuen.

Enkarguaren xedea: V. mendeurreneko kultur programan jasotako zenbait ekitaldi antolatzea eta gauzatzea. Ekitaldi horiek programaren eranskinean agertzen dira. Programa urtarrilaren 24ko 8/2006 Foru Aginduaren bidez onetsi zen, Batzorde Antolatzailak eginiko proposamenak ikusirik eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean.

Egiteko epea: 2006ko otsailaren 15etik abenduaren 31ra bitarte.

Enkarguaren hasierako aurrekontua hiru gutxiagotze izan ditu, guztira 240.000 euro egiten dutenak. Horrenbestez, behin betiko aurrekontua 1.686.870 eurokoa izan da. Ordaindu beharreko kopuruari dagokionez, aldeek hitzartu zuten sozietate publikoak fakturaturikotik kentzea sarrera salmentatik lortutakoa.

– Enkarguak gehienezko prezioa ezartzen du, baina ez dira agertzen jardura bakoitza betetzeko aurrekontua zehazte aldera aplikaturiko prezioak, ez eta Baluarte emandako zerbitzuengatik kobratuko duen mozkin-marjina eta marjina hori kalkulatzeko aplikatuko den irizpidea ere. Sozietate publikoak 123.593 euro fakturatu ditu kontzeptu honengatik, hau da, egindako gastuen ehuneko hamar.

Sozietateak baimendutako gehieneko gastuaren ehuneko 93,5 erabili du. Fakturatutako kostu osoan -1.577.391 euro- sartzen dira Baluarteren kudeaketa gastuak, 214.127 eurokoak -gastu horiek hartzen dituzte kontrataturiko langileen gastuak ehuneko 10eko marjina (ikus 4.2.2 F) ataleko iruzkinak)-, hornikuntza eta kanpoko zerbitzuei buruzko gastuak, 1.147.692 eurokoak, eta BEZa.

Baluartan programaturiko ekitaldien artean, batzuk doakoak izan ziren eta beste batzuk, berriz, ordaindu beharrekoak. Azken horiei dagokienez, sarreraren salmentagatik dirusarrerak 54.662,21 euro egin zuten, hau da, enkargu osoaren ehuneko 3,47).

B) Dirulaguntza Jesusen Lagundiari gazteluko sarrerak zaharberitzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko.

- Dirulaguntza zuzenean eman zitzaion entitateari, egindako lan batzuk finantzatzeko, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren apirilaren 27ko 100/2006 Foru Aginduaren bidez. Aldez aurretik Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen, 2006ko apirilaren 6ko erabakiaren bidez. Erabaki horretan jasotzen denez, interes soziala da ekimen hori babesteko arrazoia.

Xedea eta zenbatekoa: oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak (300.000 euro) eta multzoaren erabilera errazteko esku-hartzeak (50.152 euro).

- 2005ean eginiko inbertsioak finantzatzeko, 350.152 euroko kreditu-gehikuntza bat egin zen 2006ko martxoan. Bertan sartu ziren 2005eko kontusailean erabilgarri zeuden 59.070 euro.

Dirulaguntza *ex post* eman izanaren ondorioz, aldeek ez zituzten alde aurretik adostu lanei aplikagarri zitzaizkien betetze-, finantzaketa-, justifikazio- eta ordainketa-baldintzak, administrazioak lanak betetzen ziren bitartean kontrola zitzakeenak. Onuradunaren betebeharrak bakarra, esleipenari buruzko foru aginduaren hirugarren idatz-zatian aipatzen dena, lanen ziurtagiria aurkeztea da. Onuradunak enpresak kontratatu ditu eta lanak bete ditu bere prozedurei jarraikiz.

Gure iritzian, dirulaguntza *ex post* eman izana eta hurrengo ekitaldian kreditu-gehikuntza baten bidez finantzatu izanak adierazten du programazio gabeziak egon direla finantzatu beharreko aurreikuspenean, horretarako jarri beharreko kredituetan eta aplikatu beharreko baldintzetan. Are gehiago, emakida modu zuzenean egin zenean.

Halaber, lanak egin diren tokien titulartasunaren auzia planteatu zen; izan ere, zaila zen zehaztea lanak beren osotasunean Jesusen Lagundiaren lursailetan egitekoak ziren edota zentsu

enfeutikoko lurzatiren bat hartzen duen. Horri dagokionez, txosten honetako H) idatz-zatian gai horri buruz eginiko iruzkinak balio dute honetan ere.

Aurkeztutako fakturek 466.919 euro egiten dute; horrenbestez, emandako dirulaguntzak lanen eta instalazioen kostuaren ehuneko 75 egiten du.

C) Nafarroako Kutxa fundazioarekin eginiko hitzarmena, boluntario kidego bat antolatzeko.

2006ko kontusailari egotzitako gastuei dagokienez -54.490,67 euro-, Nafarroako Kutxa fundazioari itzulitako 221.565 euroez gain, boluntario kidegoaren antolamendu lanetarako laguntza teknikoa emateko kontratua ere sartu da, 15.000 euroko gastua egiten duena. Horri dagokionez, balio dute ere aurreko 4.3.3 "B" idatz-zatian eginiko iruzkinak.

IV.3.5 Publizitate gastuak

Kultura Zuzendaritza Nagusiak enkargua egin zion Komunikazio Zuzendaritza Nagusiari, urtarrilaren 1eko 1/2006 Ebazpenaren bidez, publizitatea kontrata zezan eta V. mendeurrenako ekitaldien barruan erakusketa ibiltari bat antolatu eta heda zezan. Horretarako 1.000.000 euroko gastua baimendu zuen.

Bere aldetik, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak otsailaren 8ko 15/2006 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez prestazioak egiteko enkargua egin zion 2006rako foru administrazioaren sormenezko publizitate arrunta kudeatzeko esleipen-hatzaileari.

Enpresa esleipen-hartzaileak 1.006.725 euroko factura aurkeztu izkion 2006an Kultura Departamentuari. Zenbateko horretan sartu ziren zerbitzu desberdinek eginiko beste enkargu batzuk ere.

IV.3.6 "Erakusketen gastuak" izeneko kontusaila (2006ko aurrekontua)

El Crisantemo y la Espada: Samurais, Geishas y Teatro Kabuki. Colección Pilar Coomonte y Nicolás Gless izeneko erakusketarako laguntza teknikoa.

Kontratua adituekin eginiko negoziazio zuzenaren bidez esleitu zen, Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko Foru Legearen 80.1.b) artikuluan ezarritako berezitasun teknikoa oinarritzat hartuta. Laguntza teknikoagatik 22.806 euro ordaindu ziren.

Erakusketa bere ostasunean 67.615 euro kosta da, eta gastu hori 2005eko eta 2006ko kontusailei egotzi zaie.

IV.3.7 “Erakusketak eta animazioa” izeneko A21002 A2210 2269 332100 kontusaila.

Jendearen harrera-zerbitzurako laguntza tekniko – “Los Señores de Javier. Un linaje en torno a un Santo” erakusketa.

Martxoaren 16ko 105/2006 Ebazpenaren bidez, Kultura zuzendari nagusiak onetsi zuen Nafarroako Artxibo Nagusian egin beharreko Frantzisko Xabierkoari buruzko erakusketa, eta 126.000 euroko gastua baimendu zuen aipatu erakusketa antolatzeko.

Laguntza teknikoaren kontratuaren xedea zen erakusketan jendearen harrera-zerbitzua bermatzea. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu zitzaion eskaintza aurkeztu zuen enpresa bakarrari, 26.000 euroan.

Esleipen-hartzaile berak 26.000 euro fakturatu zituen, bai eta prestazioen zabalpena ere, 2.434 eurokoa. Azken zenbateko hori ez zen kargatu lehen aipaturiko 105/2006 Ebazpenaren barruan, nahiz eta baimendutako gehienezko zenbatekoa ez zen bere osotasunean erabili. Halaber, egiaztatu dugu esleipen-hartzaileari 30.370 euro ordaindu zitzaizkiola V. mendeurrena dela-eta emandako zerbitzu guztiengatik.

Erakusketari eskainitako kontusailari egotzitako gastuak, guztira, 72.474 egin zuen, hau da, baimendutako gastuaren ehuneko 57,52 euro.

Aurreko idatz-zatietan eginiko ohartarazpenei dagokienez, hona gure gomendioak:

– *Jarduerak denbora nahikoarekin prestatu behar dira, obretarako finantzaketa egokia eskuragarri izanen dela bermatzeko, hitzarmenak lanak hasi baino lehen negoziatu, justifikatu eta sinatu ahal izateko, eta hitzarmen horiek bidezkoak diren kudeaketa- eta kontrol-baldintzak ezar ditzaten. Bereziki, hitzarmenek zehaztu beharko lituzkete lanen betetzearen eraginkortasuna eta ekonomia justifikatzeari buruzko baldintzak, 30.000 euro gainditzen dituzten hornitzaile/kontratastak hautatzeari buruzkoak, hautagaiek bete beharreko baldintzei buruzkoak, finantzaketa ehunekoei eta lanak betetzeko epe arrazoizkoei buruzkoak, eta diruz lagundutako zentroen eta tokien xedeari eta foru administrazioak horiek erabiltzeari buruzkoak.*

– *BEZari dagokionez, salbuestsita dagoen kasuetan egiaztatu behar da salbuespena bidezkoa dela, eman dela eta espedientearen agiri bidez egiaztatuta agertzen dela. Lehen aztertu ditugun sarbideko lanen egoera erregularizatu behar da, salbuespena ez baitago jasota.*

– *Ziurtatu behar da balizko funtsen itzulketak behar bezala kontabilizatzen direla, halako moduz non egitate ekonomikoen errealtate islatzen duten. Eginiko gastuak kasuan kasuko baimenaren aurka kontabilizatu behar dira.*

– *Arauetan ezarritako xedapenei jarraitu behar zaie mandatuaren enkargu, betetze eta kontrolari dagokionez, eta, bereziki, ziurtatu behar da enkarguz emandako lanak entitate publiko instrumentalaren helburu soziala osatzen duten arloetan sartzen direla eta eginiko lanak behar bezala justifikatu, fakturatu eta ikuskatzen direla. Onetsitako aurrekontuan zehaztu behar dira enkarguari aplikagarri zaizkion kostua eta ehunekoa, elementu objektibo eta egiaztagarriak oinarritzat hartuta, eta modu egokian egotzen direla kontrolatu behar da. Egiaztatu behar da ente instrumentalek kontratazioaren arloan nahitaezkoak diren printzipioak eta arauak aplikatzen dituztela.*

– *Ziurtatu behar da kontratazioaren arloko printzipioak eta prozedurak aplikatzen direla, bereziki esleitzen diren osoko zenbatekoak direla-eta eskatzen direnak, kontratuaren xedea zatikatu gabe.*

– *Espedienteak osatu behar dira behar diren ziurtagiriek.*

– *Obretarako dirulaguntzak eman baino lehen, ziurtatu behar da nor den ukitutako lursailen titularrak, kasua bada, zuzenketak egin behar dira, eta erregistratu behar dira Xabierko lursailen titulartasuna eta eskubide guztiena, zeinen titularra Nafarroako Gobernua baita, bai jabetza zuzenaren ondorioz, bai enfiteusi, erabilera edota jabariari buruzko kontratuen ondorioz.*

Kasua bada, bere ardurapeko gune publikoetan egin beharreko lanak zuzenean egin behar ditu, horrek ezertan galarazi gabe ukitutako beste toki administrazio batzuekin egin daitezkeen hitzarmenak. Lan horiek eragindako gastuak kontusail egokiari egotzi behar zaizkio, ardura duen zerbitzuaren barruan.

IV.4. GIZARTE ONGIZATEKO DEPARTAMENTUA

Alboan fundazioari emandako dirulaguntza, “Kultura eta giza garapena” izeneko jardunaldiak egiteko Iruñean.

2006ko aurrekontuetan, “Alboan fundazioaren Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena Garapenerako Lankidetzari buruzko Nazioarteko Kongresua” izeneko kontusaila agertzen da, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuarena, eta 60.000 euroko hasierako aurrekontua du.

2006ko ekainean, fundazioak jardunadia egiteko proiektua aurkeztu zuen. Proiektuaren aurrekontua 234.339 eurokoa zen. Nafarroako Gobernuak finantzatu beharreko zatiak 90.200 euro egiten zuen, aurreikusitako kostu osoaren ehuneko 38. Hain zuzen, Kanpo Arazoetako Ministerioak jardunaldiak finantzatzeko jarri zuen ehuneko berdina.

Beharrezkoak ziren kredituak lortzeko, Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak ebazpen bat eman zuen 2006ko irailaren 27an, eta horren bidez baimena eman zuen kontusailen arteko doikuntza egiteko eta 30.200 euro gehiago jartzeko kontusail izendunean, eta erabaki zuen doikuntza horren berri ematea Nafarroako Parlamentuari.

Jardunaldiak Iruñeko Baluartean egin ziren, 2006ko azaroaren 20tik 23ra.

Abenduaren 11n, Nafarroako Gobernuak *ex post* baimena eman zuen, fundazioari 90.200 euroko beste dirulaguntza bat emateko. Dirulaguntza zuzenean eman zen, Nafarroako aurrekontu orokorretako dirulaguntza izendunei eta/edo hartzailearen eskusibotasunari dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 17.2 a) eta c) artikuluetan aurreikusitakoan oinarrituta. Bigarren arrazoia, alegia soilik fundazio onuradunak antolatu ahal izatea "Kultura eta Giza Garapena" izeneko jardunaldiak, ez dago behar bezala espedientean justifikatuta, gure iritzian.

Abenduaren 15ean, Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak 398/2006 Ebazpena eman zuen, eta, horren bidez, 90.200 euroko dirulaguntza eman zuen *ex post*, dirulaguntzaren oinarri arauemaileak ezarri zituen eta 60.000 euroko aurrerakin bat ordaintzea baimendu zuen, jada betetako ekin-tzetarako.

2006ko abenduaren 22an, onuradunak proiektuaren betetzeari buruzko amaierako txosten narratiboa eta ekonomikoa aurkeztu zuen.

Fundazioak aurkeztutako osoko gastua 161.703 eurokoa izan zen; horietatik 66.517 Nafarroako Gobernuak finantzaturiko zatiari egotzi

zitzaizkion. Arduradunek azaldu digutenez, gastua txikiagoa izan zen hizlari gutxiagok parte hartu zutelako eta hasierako helburuak murriztu zirelako.

2007ko urtarrilean, Alboan fundazioko zuzendariak lau hilabeteko luzapena eskatu zuen argitalpenaren eta haren zabalkundearen gastuak justifikatzeko; izan ere, lan horiek prestatze fasean zeuden eta fakturak ez ziren igorri, ez eta txostenarekin batera aurkeztu ere, egiaztagiri gisa.

2007ko maiatzean, fundazioak dirulaguntzari buruzko "txosten gehigarri" bat aurkeztu zuen, hitzaldien argitalpenari dagozkion ordainagiriekin batera. Ordainagirik 10.635 euro egin zuten.

Laburbilduz, fundazioak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzari egotzitakoak 64.092 euro egiten du; hain zuzen, kontusail izendunean zegoen dirua baino gutxiago.

Fiskalizazioa egin zen egunean, Gizarte Ongizateko Departamentuak ez zuen eginga ammaierako likidazioa.

Hona gomendioak:

– *Jarduerak denbora nahikoarekin prestatu eta burutu behar dira, halako moduz non ziurtatzen den emakida, oinarri arauemaileak eta finantzaketa-baldintzak indarrean daudela beharrezkoa denean eta lagun dezaten eraginkortasuna eta ekonomia indartzen diruz lagundutako proiektuak betetzerakoan.*

– *Dirulaguntzen likidazioa arrazoizkoa den epe batean egin behar da, oinarri arauemaileetan aurreikusitako beteze-epean egindako gastuak oinarritzat hartuta.*

IV.5. HERRI LAN DEPARTAMENTUA

Herri Lan Departamentuak "Tokiko sarea" izeneko kontusaiaren bidez finantzatu ditu V. mendeurrena dela-eta eginiko inbertsioak. Kontusail horrek Nafarroan egiten diren tokiko proiektu guztiak jasotzen ditu. Departamentuak ez du kontusail berezirik erabili ekitaldi horretarako. Ondoko taulan agertzen dira aitorturiko zenbatekoak, eurotan:

Urtea	Aurrekontuko kontusaila	Izena	Xabierko sarbideak	Markesina	Guztira
2005	G1620001160101453206	Tokiko sarea	2.290.800		2.290.800
2006	G1620001160101453206	Tokiko sarea	229.062	12.000	241.062
2006	G1620000160101453200	Aurrek. berikuspena	410.112		410.112
Guztira			2.929.974		2.941.974

Xabier inguruko sarbideak hobetzeko lanak

Nafarroako Gobernuak, 2004ko urriaren 25eko erabakiaren bidez, baimena eman zion Herri Lan kontseilariari “Xabierren sartzeko bidea egin eta obrak burutzeko proiektuaren prestakuntza” izeneko lanak kontratatzeko.

Kontratazio-espeditentea azaroaren 5eko 1027/2004 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Lanak urtarrilaren 3ko 2/2005 Foru Aginduaren bidez esleitu ziren, 2.290.800 eurotan. Hori lizitazio prezioaren 0,40ko beherapena da. Kontratuak eta baldintza-orriek aurreikusten zuten prezioak berrikusteko aukera, betiere obraren ehuneko 20 egindakoan eta esleipenetik 6 hilabete igaro eta gero.

Obrak egiteko epea 2005eko urriaren 31ra artekoa zen.

Obren onarpen-akta 2005eko azaroaren 30ean egin zen.

Lanak onartu eta urtebetera, 2006ko azaroaren 20an, proiektuaren ardura zuen Zainketa Zerbitzuak 229.062 euroko –esleitutako kostuaren ehuneko 9,99– handitzearen aldeko txostena egin zuen. Bertan esaten zen lanak egiterakoan zenbait aldaketa egin zirela, hasieran onetsitako egoera hobetzeko balio zutenak. Aldaketa horiek bide-segurtasunari eta ingurumenaren gainean eragin zitezkeen kalteak zuzentzeko neurriei buruzkoak ziren, ingurumenean erabateko integrazioa berma-

tze aldera, eta, hori dela eta, obra-unitateetan aurreikusitako neurketak baino gehiago egin ziren.

Herri Lan zuzendari nagusiak onetsi zuen “Xabierko ingururako sarbideak hobetzeko lanak” izeneko obren likidazioa, abenduaren 12ko 1327/2006 Ebazpenaren bidez.

Prezioen berrikusketaren ondoriozko likidazioaren ordainagiria 2006ko urrian aurkeztu zen eta 2007an onetsi eta ordaindu zen.

Obraren hasierako proiektuan aldaketak egiteagatik eta/edo neurketa gehiago egiteagatik gastuak handitzen diren kasuetan, gomendatzen dugu aldaketa horien kontrola egitea, aurrekontuan duten eragina zenbatetsi eta agirietan jaso ahal izateko lanak egiteko eta obra onartzeko aldi-etan. Halaber, gomendatzen dugu kasu guztietan errespetatzea aurrekontu-gastuak onesteko eta obrak likidatzeko epeak.

IV.6. LEHENDAKARITZA DEPARTAMENTUA (2) – KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Lehendakaritza Departamentuak, Komunikazio zuzendari nagusiak koordinatuta, aurrekontuko 24 kontusail arruntan bidez kudeatu ditu V. mendeurrena dela-eta eginiko gastuak. Ez direnez erabili ekitaldi horretarako kontusail edo programa berarizkoak, ez dago kontabilitate- eta aurrekontu-informaziorik V. mendeurrenerako aurreikusita zeuden hasierako diru-hornidurei buruz. Ondoko taulan agertzen dira aitorturiko zenbatekoak, eurotan:

Lehendakaritza Departamentua – V. mendeurrenako gastuak, eurotan				
Gastu-arloa		Zenbatekoa	Doikuntzak	Zuzendua
220001	Prentsa-kabinetea	105.346	273	105.620
220002	Publizitatea	265.371	7.244	272.615
220003	Argitalpenak	248.687	2.559	251.245
220004	Protokoloa	376.687	39.711	416.397
V. mendeurrena, guztira		996.091	49.786	1.045.877

(2) 2004az geroztik, Toki Administrazioiko Departamentua.

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak V. mendeurrenako gastuen berri eman zigun –996.091 euro–, 2004, 2005 eta 2006ko kontusailetan kontabilizatu zirenak, Egokitzen jo ditugun egiaztapenak egin ondoren, zerbitzu arduradunek berretsi digute gastuek 1.045.877 euro egiten dutela.

– Bai Lehendakariak Departamentuak bai Kultura Departamentuak publizitate zerbitzuak emateko hautatu eta kontratatu duten enpresa da Nafarroako Gobernuak sormenezko publizitatea egiteko urtero izapidetzen duen kontratu markoaren enpresa esleipenduna. Kontratu marko horretan sartzen dira “Nafarroa 06. Zure hitzordu kulturala” eta “Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko programa” bezalako proiektuak gauzatzeko eta telebistako iragarkiak egiteko eta emateko ordaindutako zenbatekoak.

– Askotariko zerbitzuak emateko kontratatutako beste enpresei dagokienez, eta gastuen eta hornitzaileen laginari buruz egin dugun azterketan oinarrituta, ohartu gara Komunikazio Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu kudeatzaileek 12.010/15.000 euroko gastu ugari kontratatu eta kontabilizatu dituztela. Gastu horietarako, munta txikiko espedienteak direnez, ordainagiria eta kreditu erreserba besterik ez da eskatzen, indarrean dagoen kontratazioari buruzko araudiak halkako zenbatekoetarako xedetzen duenari jarraikiz. Kontratatzera ez dira kontuan hartzen hornitzaile berari urtean edo, gure kasuan, V. mendeurrenaren ospakizunaren aldi, ordaintzen zaizkion zenbateko osoak, hein batean, kudeatzaile desberdinen eskaerak programatzeko izaten diren zailtasunengatik. Egiaztatu dugu zenbait hornitzailek ekitaldirako zerbitzuak edo hornikuntzak eman dituztela 30.050 eta 60.101 euroko baino gehiagoko zenbateko metatuz, baina espediente horiek 12.010 euro baino gutxiagoko espedienteak bezala formalizatu eta izapidetu dira.

Hona gomendioak:

Aztertu behar da tresna eragile batzuk abiarazteko aukera, bai ekitaldi honetarako bai departamentu desberdinen esku-hartzearekin gauzatu den eta garrantzi ekonomiko eta soziala duen beste edozein programarako, bermatzeko informazio osoa eta etengabea dagoela, maila orokorrean eta xehekatua, ondokoei buruz: zertan gastatzen den ditua, zer ekintzarako, zein onuradunekin, nola gastatzen den, nork finantzatzen duen eta zer emaitza lortzeko.

Ziurtatu behar da kontratazioaren arloko printzipioak eta prozedurak aplikatzen direla, bereziki esleitzen diren osoko zenbatekoak direla-eta eskatzen direnak, kontratuaren xedea zatikatu gabe.

IV.7. DIRUSARRERAK

Aitortutako eta V. mendeurrenari atxikitako dirusarrerak 538.074 euro egiten dute. Dirusarrera horietatik, Nafarroako Kutxa fundazioari itzultutako 221.565 euroak kendu beharko lirakeke. Ikusi iruzkinak txosten honetako 4.3.3 B) atalean.

Foru administrazioak 3., 4. eta 7. kapituluak zenbait kontusail erabili ditu dirusarrerak erregistratzeko, V. mendeurrenarekin sorturiko aurrekontu-dirusarrerak zuzenean lortzea ahalbidetuko duen kontabilitate-erreferentziarik gabe.

Hirugarrenen ekarpena 261.846 euro ingurukoa izan da. Hona hemen lankidetzak batzuk:

A) Nafarroako Kutxa fundazioak, lehen aipatu bezala, 78.435 euroko transferentzia egin zuen –itzulketa zuzendu ostean– boluntario kidego bat antolatzeke (3).

B) Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECI), zeina Kanpo Arazoetako Ministerioaren erakunde autónomo bat baita, 107.000 euroko ekarpena egin du. Dirusarrera 2007an gauzatu zen.

C) Kultura Ministerioak zenbait gastu finantzatu lagundu du 56.411,41 euroekin (hasiera batean 60.000 euro bere gain hartu behar bazituen ere).

D) “Bodegas Domecq” enpresak 20.000 euroko ekarpena egin du.

Bestalde, Baluarte sozietateak sarreraren salmentagatik lortutako dirusarrerak 55.000 euro egiten dute. Zenbateko hori kendu da Kultura Departamentuak “Baluarte S.A.” sozietateari ordainduriko ordainagiritatik.

IV.8. GAUZATUTAKO EKINTZEK IZANDAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Mendeurrenako ekitaldiekin berriazko loturarik ez duten aurrekontu-lerroak erabiltzeak, eta, horrekin batera, ez izateak aipatu ekitaldi guztiak jasotzen zituen programa orokor bakarra, non lortu beharreko helburuak eta beharrezkoak ziren baliabide ekonomikoak agertzen baitziren, eta adieraz-

(3) 2005eko abenduaren 5ean Nafarroako Kutxa Fundazioarekin sinatutako hitzarmenean aurreikusten zen entitate horrek bere ardurapean gauzatuko zuela “Xabier-Arte” izeneko erakusketa ikonografikoa eta hari zegokion gastua osorik (700.000 euroko balio zenbatetsia) finantzatuko zuela. Aipatu erakusketa ez da sartu fiskalizazioan, ez baita haren xedean sartzen.

le eta estatistika egokirik ez izateak zailagoa egin du V. mendeurreneko ekintzen jarraipena egitea eta horien emaitzen ebaluazioa.

Xabierko gaztelura joan den jende kopuruari dagokionez, Foruzaingoak eginiko gutxi gorabeherako txostenak eskuragarri daude. Horien arabera, 1.200.000 pertsona joan dira Xabierrera V. mendeurreneko ekitaldietan parte hartzera.

Programaturiko ekitaldi gehienak doakoak izan ziren. Doakoak izan ez zirenei dagokienez, Baluartan egin zirenetara 58.000 pertsona joan ziren, guztira.

Nafarroako Gobernuak "Todos en Javier. Resumen del Quinto Centenario" argitalpena egin du. Bertan 2006an eginiko ekitaldi garrantzitsuenak

jasotzen dira, bai eta Xabierren eginiko berritzelana ere.

Honako hau gomendatzen dugu:

Garrantzi berezia duten programak osatzea eta helburu zenbatetsi batzuk ezartzea, adierazle zehatzekin eta jarraipena egiteko eta informazioa jasotzeko mekanismoekin batera, lortutako emaitzen ebaluazio sistematiko bat egin ahal izateko.

Txosten hau José Fuertes Pérez auditoreak proposatuta eman da, bera baita lan hau burutzeko erantzukizuna izan duena, behin indarreko legediak ezarritako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 2008ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA

Ekitaldia	Kap.	departamentu	Aurrekontuko kontusaila	Izena	Bateratua	betebeherra	% Ordaindutakoa	%
2003	6	Hezkuntza eta Kultura	A52000 A1000 6020 452103	Xabierko Plan Zuzendana	901.520,00	0,00	0	0
2003, guztira					901.520,00	0,00	0	0,00
2004	7	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A20001 A2110 7810 458103	Xabierko Plan Zuzendana	2.951.520,00	2.951.000,00	100	2.539.288,27
2004, guztira					2.951.520,00	2.951.000,00	100	2.539.288,27
2005	7	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A11002 A1410 7810 331100	Ballo antzeko zentroa	2.140.000,00	2.058.226,33	96	1.169.862,46
2005	2	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A20001 A2100 2276 337100	Proiektuak, ikerketak, dokum.	20.900,00			
2005	2	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A20001 A2110 2262 337100	Ondare artistikoaren zabalkundea	7.100,00			
2005	2	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A11002 A1410 2400 334200	Argitalpenak	29.575,00			
2005, guztira					2.140.000,00	2.115.801,33	96	1.169.862,46
2006	7	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A20000 A2000 7819 337100	Xabier 2006	4.170.152,00	3.618.505,44	92	3.400.418,42
2006	2	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A20001 A2100 2276 337100	Kultura ibilbidea	50.000,00	48.616,62	97	35.099,13
2006	2	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A20003 A2320 2269 333100	Erakusketak	56.064,31			
2006	2	Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Dep.	A21002 A2210 2269 332100	Erakusketak	72.473,50			
2006	4	Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Dep.	900000 91200 4819 143106	Nazioarteko kongresua	90.200,00	60.000,00	67	60.000,00
2006, guztira					4.310.352,00	3.855.659,87	67	3.495.517,55
2005	6	Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	620001 61100 6010 453206	Tokiko sarea	2.290.800,00			2.290.800,00
2005, guztira					0,00	2.290.800,00		2.290.800,00
2006	6	Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	620001 61100 6010 453207	Tokiko sarea	241.062,07			241.062,07
2006	6	Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	621000 61100 6010 453200	Prezioak berrikustea	410.111,63			410.111,63
2006, guztira					0,00	651.173,70		651.173,70
2004	2	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	221001 22100 2262 126502	Komunikazio instituzionalak	21.428,97		100	21.428,97
2004	2	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	221001 22100 2269 126500	Zenbait gastu	653,54		100	653,54
2004, guztira					0,00	22.082,51		22.082,51
2005	2	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	220001 22100 2262 921502	Komunikazio instituzionalak	12.611,05		100	12.611,05
2005	2	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	220001 22100 2279 921500	Web orriaren mantentze-lanak	3.995,36		100	3.995,36
2005	2	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2219 921800	Mendeumenerako homidurak	9.613,18		100	9.613,18
2005	2	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2261 921800	Protokoloa	4.959,13		100	4.959,13
2005	2	Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22100 2269 921500	Gastu zenbait	27.138,66		100	27.138,66

Ekitaldia	Kap.	departamentu	Aurrekontuko kontusaila	Izena	Bateratua	betebeharra	% Ordaindutakoa	%
2005	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2269 921800	Nafarroako Eguna		40058,76	100	40.058,76 100
2005	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	222003 22200 2400 921899	Argitalpenak		61.480	100	61.480 100
2005	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	222003 22200 2400 921900	Argitalpenak		70.344,56	100	70.344,56 100
2005, guztira					0,00	169.335,50		169.335,50
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220001 22100 2169 921500	Konponketak		10.395,68	100	10.395,68 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220001 22100 2276 921500	Ikus-entzunezkoak		43.750,32	100	43.750,32 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220001 22100 2279 921503	Promozio jarduerak		10.981,13	100	10.981,13 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2219 921800	Mendurenerako homidurak		26.716,08	100	26.716,08 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220001 22100 2279 921500	Web orriaren mantentze-lanak		968,60	100	968,60 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220001 22200 2279 921800	Komunikazio laguntza		835,20	100	835,20 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220002 22100 2262 921500	Publizitate grafikoa		92.139,07	100	92.139,07 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220002 22100 2262 921502	Nafarroaren irudia		180.475,44	100	180.475,44 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2261 921502	Komunikazio instituzionalak		75.103,59	100	75.103,59 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2261 921800	Nafarroako Eguna		9.350,39	100	9.350,39 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2261 921800	Protokoloa		171.826,68	100	171.826,68 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2269 921500	Zenbait gastu		49.169,08	100	49.169,08 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220004 22200 2269 921800	Nafarroako Eguna		2.461,72	100	2.461,72 100
2006	2	Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentua	220003 22200 2400 921900	Liburuak argitaratzeko gastuak		180.286,03	100	180.286,03 100
2006, guztira					0,00	854.459,01		854.459,01
Guztira					10.303.392,00	12.910.311,92		11.192.519,00
2007an ORDAINTZEKE DAUDEN GASTUAK								
2007	2	Vianako Printzea Erakundeakultura eta Turismo Dep.	A20002 A2510 2269 335102	Zenbait gastu		2.045,91		
2007	2	Vianako Printzea Erakundeakultura eta Turismo Dep.	A20002 A2510 2269 335103	Zenbait gastu		3.592,60		
FISKALIZATU GABEKO GASTUAK								
2006	2	Vianako Printzea Erakundeakultura eta Turismo Dep.	A10001 A1100 2212 432301	Xabierko eta Zangoako turismo bulegoak		85.000,00		
2006	2	Vianako Printzea Erakundeakultura eta Turismo Dep.	A10002 A1200 2212 432300	Zentsu enfitteutikoa		27.598,23		
2006	2	Ekonomia eta Ogasuna	I21003 13300 2269 923100	Viveros y Repoblaciones		100.000,00		
FISKALIZATU GABEKO GASTUAK, GUZTIRA						212.598,23		

II. ERANSKINA**II. Eranskina-A) laburpena, 5.000 euroko baino gehiagoko onuradun/hornitzaileen arabera**

Hartzailea	Zenbateko doitua, guztira	Metatua %
Jesusen Lagundia	4.498.939,36	34,8%
Navasfalt Aglomerados SL	2.961.398,10	57,8%
Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra SA	1.751.308,50	71,4%
Gap's Comunicación Pamplona SL	1.249.704,21	81,0%
Iruñeko Artzapezpikutzza	296.262,00	83,3%
Artística Transporte Especial SL	89.097,25	84,0%
Morlanda	83.769,00	84,7%
Estudio Ken SL	83.296,28	85,3%
Fase Tres	81.014,99	85,9%
Eventos Zunzarren SL	66.928,08	86,5%
Obrador de Aristregui SL	62.760,52	86,9%
Informática el Corte Inglés SA	60.272,92	87,4%
Alboan fundazioa	60.000,00	87,9%
Cañada,Palacio,Femando	50.447,99	88,3%
Obras Especiales Navarra SA	49.823,85	88,7%
Javier Errea	44.234,05	89,0%
Barañano, Letamendia, Cosme Marí a	43.244,00	89,3%
Nafarroako Unibertsitatea Unibertsitate Klinikak	40.000,00	89,6%
Gráficas Lizarra SL	33.538,40	89,9%
Xabier hotela	32.660,55	90,2%
Pronatel Audiovisuales	32.640,92	90,4%
"Pablo Sarasate" Kontserbatorioa	31.200,00	90,6%
R. Zunzarren Pintura Publicitaria SA	30.915,51	90,9%
Colectivo Cultural Iñigo Arista S.L.	30.369,76	91,1%
Opnatel	30.017,06	91,4%
La Tafallesa SA	28.233,27	91,6%
C 7 Seguridad SL	28.080,80	91,8%
Construcciones Metálicas Ariz S A	26.634,76	92,0%
Render Process SL	26.388,14	92,2%
EGN	25.500,00	92,4%
Global Servicios Culturales	24.754,66	92,6%
Laguardia Chocarro Abilio eta Lapeña Gil Alfonso	19.401,00	92,7%
Torrens Alzu, Javier	18.610,02	92,9%
Alejandro Ruiz Pastor	18.560,00	93,0%
Castuera	17.462,96	93,2%
Imasce	17.434,80	93,3%
Gestión Ambiental-Viveros y repoblaciones de Navarra SA	16.850,86	93,4%
La Costa Publicacions SL	16.820,00	93,6%
Bi An Bi	15.928,64	93,7%
Muraria Gestión de Recursos Culturales SL	15.022,00	93,8%
Aldebaran Gestión Cultural SL	15.000,00	93,9%
Popular TV	14.999,80	94,0%
Imprenta Comercial	14.995,08	94,1%
Parra, Torres, JoséMiguel	14.368,92	94,3%
Mangado Samanes SL	13.920,00	94,4%
Viajes el Corte Inglés SA	13.303,37	94,5%
Ascender SL	13.142,34	94,6%
Socialis SL	13.102,10	94,7%
Viajes Sarasate	12.747,95	94,8%
Navarra de Climatización SL	12.419,62	94,9%
Alvira Palacios Fermín y Cobos Sanz Ana	12.361,08	95,0%
Inoxlaton Urla SL	12.044,74	95,1%

Hartzailea	Zenbateko doitua, guztira	Metatua %
Congresos de Navarra	12.013,24	95,1%
Jascar	12.000,00	95,2%
Deport-Dis SL	11.995,68	95,3%
Revista Cultural	11.994,40	95,4%
Gama	11.857,44	95,5%
Graficas Estella	11.668,80	95,6%
Nicolás González Hernández	11.403,00	95,7%
Pilar Pascual Dí ez	11.403,00	95,8%
Algas Comunicación	10.945,72	95,9%
Litografía Ipar	10.481,20	96,0%
Ganbera Abesbatza	10.392,00	96,0%
Sonido XXI	10.335,60	96,1%
Ufficio Organizzazione Eventi - Pontificia Università Gregoriana	10.256,00	96,2%
J.F. Collazos	10.062,30	96,3%
Tanta Pasión SL	9.873,92	96,3%
Mendoza zurgintza eta ebanisteria	9.662,80	96,4%
Jordi Cumellas	9.082,80	96,5%
Nafarroako Zientzia eta Teknologia Institutua	8.700,00	96,6%
La Veloz Sangüesina	8.608,55	96,6%
Hainbat	8.437,04	96,7%
Homo Artesano	8.238,58	96,8%
Rodríguez, Ripodas, Alberto	8.000,00	96,8%
José María Plaza	8.000,00	96,9%
Radio Nacional de España	7.932,69	96,9%
Jaumieta, Peman, Ana María	7.917,00	97,0%
F.J. Saez	7.576,33	97,1%
Europa jatetxea	6.800,38	97,1%
Ingeman	6.765,42	97,2%
Aon Gil y Carvajal SA aseguru artekaritza	6.653,72	97,2%
Zeta	6.609,68	97,3%
Frantzisko Xabierkoaren Santutegia	6.469,28	97,3%
Lehendakaria	6.315,86	97,4%
La Esfera de los Libros	6.240,00	97,4%
Manuel Lara	6.225,14	97,5%
Katedraleko kabildoa	6.090,00	97,5%
San Cemin zentroa	6.000,00	97,6%
Carrera Rubio Nicolás eta Orduña Campos Jesús	5.997,20	97,6%
Domench bitxitegia	5.860,00	97,6%
Raúl Medinabeitia	5.800,00	97,7%
Radio Baires	5.759,40	97,7%
Baluarteko fundazioa	5.727,00	97,8%
Chozas, Palomino, Pilar	5.684,00	97,8%
Sadaba, Arpon, Eva	5.568,00	97,9%
J. Manuel Baines	5.526,01	97,9%
Hotel Yoldi SL	5.255,84	98,0%
Hotel Maisonnave SL	5.107,00	98,0%
Iruñeko Orfeoia	5.000,00	98,0%
Jvlivs	5.000,00	98,1%
Gainontzekoak	249.089,69	100,0%
Guztira	12.910.311,92	

II. Eranskina-B) Kreditu doituen banaketa, departamentuaren, kontusailaren eta urtearen arabera

Departamentua	Kontusaila	Urtea			
		2004	2005	2006	
Gizarte Ongizateko Dep., guztira	G/900000/4819/143106			60.000,00	60.000,00
Kultura	A1102 A1410 2400 334200		29.575,00		29.575,00
	A1410/G/A11002/7810/331100		2.058.226,33		2.058.226,33
	A2000/G/A20000/7819/337100			3.618.505,44	3.618.505,44
	A20003-A2320-2269-333100			56.064,31	56.064,31
	A2001 A2100 2262 337100		7.100,00		7.100,00
	A2001 A2100 2276 337100		20.900,00		20.900,00
	A21002-A2210-2269-332100			72.473,50	72.473,50
	A2110/G/A20001/7810/458103	2.951.000,00			2.951.000,00
	G/A20001/2276/337100			48.616,62	48.616,62
Kultura, guztira		2.951.000,00	2.115.801,33	3.795.659,87	8.862.461,20
Herri Lanak	G/620000/6010/453200			410.111,63	410.111,63
	G/620001/6010/453206		2.290.800,00	241.062,07	2.531.862,07
Herri Lanak, guztira			2.290.800,00	651.173,70	2.941.973,70
Komunikazioak	220001 22100 2169 921500			10.395,68	10.395,68
	220001 22100 2262 921502		12.611,05		12.611,05
	220001 22100 2276 921500			43.750,32	43.750,32
	220001 22100 2279 921500		3.995,36	968,60	4.963,96
	220001 22100 2279 921503			10.981,13	10.981,13
	220001 22200 2279 921800			835,20	835,20
	220002 22100 2262 126502	249,40			249,40
	220002 22100 2262 921500			92.139,07	92.139,07
	220002 22100 2262 921502			180.475,44	180.475,44
	220003 22200 2400 921900			2.558,50	2.558,50
	220004 22200 2219 921800		9.613,18	26.716,08	36.329,26
	220004 22200 2261 921502			75.103,59	75.103,59
	220004 22200 2261 921800			9.350,39	9.350,39
	220004 22200 2261 921800		4.959,13	171.826,68	176.785,81
	220004 22200 2269 921500		27.138,66	49.169,08	76.307,74
	220004 22200 2269 921800		40.058,76	2.461,72	42.520,48
	221001 22100 2262 126502	21.179,57			21.179,57
	221001 22100 2269 126500	653,54			653,54
	222003 22200 2400 921899		614,80		614,80
	222003 22200 2400 921900		70.344,56	177.727,53	248.072,09
Komunikazioak, guztira		22.082,51	169.335,50	854.459,01	1.045.877,02
Guztira		2.973.082,51	4.575.936,83	5.361.292,58	12.910.311,92

II. Eranskina-C) Birsailkatu gabeko kredituen banaketa, departamentuaren, kontzeptu ekonomikoaren eta urtearen arabera

Departamentua	Kontzeptu ekonomikoa	Urtea			
		2004	2005	2006	
Gizarte Ongizateko Dep., guztira	481			60.000,00	60.000,00
Kultura	226		7.100,00	128.537,81	135.637,81
	227		20.900,00	48.616,62	69.516,62
	240		29.575,00		29.575,00
	781	2.951.000,00	2.058.226,33	3.618.505,44	8.627.731,77
Kultura, guztira		2.951.000,00	2.115.801,33	3.795.659,87	8.862.461,20
Herri Lanak, guztira	601		2.290.800,00	651.173,70	2.941.973,70
Komunikazioak	216			10.395,68	10.395,68
	221		9.613,18	26.716,08	36.329,26
	226	22.082,51	84.767,60	580.525,97	687.376,08
	227		3.995,36	56.535,25	60.530,61
	240		70.959,36	180.286,03	251.245,39
Komunikazioak, guztira		22.082,51	169.335,50	854.459,01	1.045.877,02
Guztira		2.973.082,51	4.575.936,83	5.361.292,58	12.910.311,92

Birsailkatutako kredituak, departamentuaren, kontzeptu ekonomikoaren eta urtearen arabera

Departamentua	Kontzeptu ekonomikoa	Urtea			
		Birsailkatua	2004	2005	2006
Gizarte Ongizateko Dep., guztira	481			60.000,00	60.000,00
Kultura	220		2.950,19	447,24	3.397,43
	221		21.865,40	11.729,92	33.595,32
	223		3.739,33	117.239,14	120.978,47
	224			9.328,08	9.328,08
	226		145.201,88	1.242.748,67	1.387.950,55
	227		162.616,62	1.917.534,66	2.080.151,28
	228		2.440,19	5.977,71	8.417,90
	230			20.104,17	20.104,17
	240		113.344,00	24.347,20	137.691,20
	601		536.673,08	31.424,40	568.097,48
	608			49.823,85	49.823,85
	781	2.951.000,00	1.126.970,64	364.954,83	4.442.925,47
Kultura, guztira		2.951.000,00	2.115.801,33	3.795.659,87	8.862.461,20
Herri Lanak, guztira	601		2.290.800,00	651.173,70	2.941.973,70
Komunikazioak	216			10.395,68	10.395,68
	221		9.613,18	26.716,08	36.329,26
	226	22.082,51	74.383,60	580.525,97	676.992,08
	227		14.379,36	56.535,25	70.914,61
	240		70.959,36	180.286,03	251.245,39
Komunikazioak, guztira		22.082,51	169.335,50	854.459,01	1.045.877,02
Guztira		2.973.082,51	4.575.936,83	5.361.292,58	12.910.311,92

II. Eranskina-D) birsailkatutako kredituak, kontzeptu ekonomikoaren, departamentuaren eta urtearen arabera

Kodea	Bilsailkatutako kontzeptu ekonomikoa	Departamentua			Guztira
		2004	2005	2006	
216	Ikus-entzunezko eta telefonia ekipoen instalazioa eta mantentze-lanak	Lehendakaritza	10.395,68	10.395,68	10.395,68
220	Bulegoko materiala, koademaketak eta gonbidapen-gutunak	Kultura	2.950,19	447,24	3.397,43
		Kultura	21.865,40	11.729,92	33.595,32
221	Hornidura bereziak, oroigarriak	Lehendakaritza	9.613,18	26.716,08	36.329,26
		Guztira	31.478,58	38.446,00	69.924,58
223	Erakusketen eta ballabide artistikoen eta boluntarioen garraio gastuak eta bidaiak	Kultura	3.739,33	117.239,14	120.978,47
224	Istripu- eta salgaien aseguruak	Kultura	9.328,08	9.328,08	9.328,08
		Kultura	145.201,88	1.242.748,67	1.387.950,55
226	Publizitatea eta propaganda, protokolo zereginak, jendea artatzea, kontzertuak, otamenak, kongresuak, hitzaldiak eta bestelako gastuak	Lehendakaritza	22.082,51	74.383,60	580.525,97
		Guztira	22.082,51	1.823.274,64	2.064.942,63
		Kultura	162.616,62	1.917.534,66	2.080.151,28
227	Baluarteri eginiko enkarguak, programako kultur ekitaldiak eta ikuskizunak antolatzeke.	Lehendakaritza	14.379,36	56.535,25	70.914,61
		Guztira	176.995,98	1.974.069,91	2.151.065,89
228	Hornigai osagarriak, gasa, elektrizitatea, erregaia	Kultura	2.440,19	5.977,71	8.417,90
230	Nazioarteko kongresuko hizlarien ordainsariak eta bidaiak-gastuak	Kultura	20.104,17	20.104,17	20.104,17
		Kultura	113.344,00	24.347,20	137.691,20
240	Zine produktzio gastuak, eta liburuen, argitalpenen eta ikus-entzunezkoen edizioari eta zabalkundeari buruzkoak	Lehendakaritza	70.959,36	180.286,03	251.245,39
		Guztira	184.303,36	204.633,23	388.936,59
481	Alboan fundazioari emandako dirulaguntza	Gizarte Ongizateko Dep.	60.000,00	60.000,00	60.000,00
		Kultura	536.673,08	31.424,40	568.097,48
601	Inbentsio errealak, Xabierko sarbideen hobetze-lanak eta prezioen berrikuspena, plaza zoladura eta argitena	Herri Lan Dep.	2.290.800,00	651.173,70	2.941.973,70
		Guztira	2.827.473,08	682.598,10	3.510.071,18
608	jendea artatzeko lokala egokitzea	Kultura	49.823,85	49.823,85	49.823,85
	Kapital transferentziak: gaztelua zahar-berritzea eta egokitzeko lanak, balio anitzeko ekipamendu erlijiozko-kultural bat eraikitzea, eliza zahar-berritzea, erromesak hartzeko zentroa, espiritualtasun zentroaren barneko patioan gune estali bat jartzea, gaztelurako sarbideak eraberritzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea	Kultura	2.951.000,00	1.126.970,64	364.954,83
		Guztira	2.973.082,51	4.575.936,83	12.910.311,92

III. ERANSKINA**“Baluarte, S.A.” sozietateak antolatutako kultur ekitaldiak**

Kultur ekitaldia	Zenbatetsitako betetze-maila 2006/10/25ean	Ikusle kopuruaren zenbatespena
	(eurotan, BEZa bame)	
San Ignacio de Moxos Orkestraren zikloa	20.110	2.220
Opera Frantzisko Xabierkoaren elizan (Iruña)	13.100	2.200
Mozarten Meza (NOS eta Iruñeko Orfeoia)	44.200	250
The Chieftains	78.700	900
Tempus Floridum	2.900	150
“Mil voces cantan a Javier” eta “Los niños cantan a Javier” zikloak	113.000	25.500
Frantzisko Xabierkoa Jazz	9.600	600
Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestra eta Yamaguchiko abesbatza	2.750	600
Madredeus	67.700	800
Noa	149.300	1.400
Abesbatza-zikloa, ekainaren 12tik 17ra	23.400	1.100
Radio Tarifa	32.900	500
Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestra eta Andra Mari abesbatza	31.000	550
Onbiderako opera	2.500	500
Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestra eta abesbatza	34.500	1.100
“El mundo alrededor de Javier” kongresua	35.700	900
Pati Free	51.500	800
Gog eta Magog	114.000	5.000
“Por todo el mundo” zikloa	327.000	10.070
“El divino impaciente”	204.400	2.900
Honaino, guztira	1.358.260	58.040
Betetzea, egokitzea eta bestelakoak	371.900	
Sarreren salmentagatiko dirusarrerak	-56.000	
	1.674.160	

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Nafarroako Gobernuak Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak finantzatzeko baliatu dituen aurrekontu-kredituei buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena ikusirik, eta horretarako ezarritako epearen barruan, ondoko alegazioak aurkezten zaizkio Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrenari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari:

Lehen alegazioa: II. atala. Helburuak, norainokoa eta mugak. II.2 azpiatala. Norainokoa.

Behin-behineko txostenean fiskalizazioan sartu ez diren zenbait jarduera aipatzen dira, ohiko jarduerak direlako, edota esparru zabalago batean egiten direnak direlako, V. mendeurrenaren ospakizunak horiengan eragina izan arren. Eta horren ondotik sartu ez diren jardueren zerrenda agertzen da. Zerrenda hori ikusirik, bidezkoa da alegatzea behin-behineko fiskalizazio txostenean ez direla aipatzen ondoko espedienteak, V. mendeurrena zela-eta izapidetu zirenak eta departamentu honetan horretarako ezarritako kontusailen kargura finantzatu zirenak:

MUSIKA KONTSERBATORIO NAGUSIARI EMANDAKO DIRULAGUNTZA

- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren uztailaren 15eko 170/2005 Foru Agindua. Horren bidez onetsi zen departamentuaren eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriaren arteko lankidetzaren hitzarmena, entitate horretako orkestra sinfonikoak parte har zezan Japonian eta Nafarroan antolaturiko ekitaldietan.

IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENA KONTRATATZEA

- Kultura zuzendari nagusiaren irailaren 29ko 388/2005 Ebazpena. Horren bidez, "El Legado de Francisco de Javier en Japón, Un navarro en tierra de los daimios" izeneko dokumentalaren ekoizpen-lanak esleitu ziren.

OPNATELI EGINIKO ENKARGUA

- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren azaroaren 17ko 508/2005 Foru Agindua. Horren bidez, Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, S.A. (OPNATEL) sozietateari eman zitzaion enkargua beharrezkoak ziren lanak egin zitzaizkien komunikazioak ezartzeko Xabierko Jesusen Lagundiaren Espiritualtasun Zentroan dagoen Xabierren Urtearen prentsa aretoan, eta horretarako 16.602,64 euroko gastua baimendu zen, BEZa barne.

SCHURHAMMER DOKUMENTAZIO ZENTROA EGOKITZEA

- Kultura zuzendari nagusiaren urriaren 7ko 411/2005 Ebazpena. Horren bidez, 55.000 euroko gastua baimentzen da Xabierko Schurhammer dokumentazio zentroa egokitzeko.

SCHURHAMMER DOKUMENTAZIO ZENTROA EGOKITZEA

- Kultura zuzendari nagusiaren abenduaren 9ko 579/2005 Ebazpena. Horren bidez, berriro onesten da Xabierko Schurhammer dokumentazio zentroa kudeatzeko zerbitzuaren kontratazio-espediente eta 55.636,55 euroko gastua baimentzen da.

SAN FRANTZISKO XABIERKOARI BURUZKO NAZIOARTEKO KONGRESUA

- Kultura zuzendari nagusiaren apirilaren 24ko 196/2006 Ebazpena. Horren bidez, 100.000 euroko gastua baimentzen da San Frantzisko Xabierkoari buruzko nazioarteko kongresu bat egiteko.

"JACQUES LIPCHITZ, ENCUNTROS DE CULTURA" ERAKUSKETA

Kultura zuzendari nagusiaren maiatzaren 17ko 246/2006 Ebazpena. Horren bidez, 43.244 euroko gastua baimendu zen eta Cosme de Barañano jaunari esleitu zitzaion "Jacques Lipchitz, encuentros de Cultura" (Xabier 2006) erakusketaren comisario izateko kontratua.

Kultura zuzendari nagusiaren maiatzaren 12ko 243/2006 Ebazpena. Horren bidez, Barne Zuzendaritza Nagusiari enkargua egin zitzaion, "Jacques Lipchitz, encuentros de Cultura" (Xabier 2006) erakusketaren gaueko zaintzaren kontratazioa eta 29.900 euroko gastua baimendu zen.

- Kultura zuzendari nagusiaren maiatzaren 17ko 249/2006 Ebazpena. Horren bidez, "Jacques Lipchitz, encuentros de Cultura" (Xabier 2006) erakusketaren instalazioaren eta garraio zerbitzuaren administrazio klausula eta baldintza tekniko partikularren orriak onetsi ziren eta 89.097,25 euroko gastua baimendu zen.

MULTICULTURALIDAD: ARTE SIN LÍMITES

- Kultura zuzendari nagusiaren otsailaren 20ko 47/2006 Ebazpena. Horren bidez, 36.900 euroko gastua baimendu zen aipatu erakusketa antolatze-ko Xabier 2006 programaren barruan.

ERAKUSKETA

- Kultura zuzendari nagusiaren urtarrilaren 17ko 5/2006 Ebazpena. Horren bidez, 74.700 euroko gastua baimentzen da San Frantzisko

Xabierkoari buruzko erakusketa bat egiteko, V, mendeurrena dela-eta.

AECI-REKIN EGINIKO LANKIDETZA HITZARMENA

- Gobernuaren 2006ko martxoaren 13ko Erabakia. Horren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta AECI-ren arteko lankidetzaren hitzarmena onetsi zen, Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena zela-eta.

DIÁLOGO DE JÓVENES SOBRE LA CULTURA Y CIVILIZACIONES

- Gobernuaren 2006ko urriaren 23ko Erabakia. Horren bidez, onetsi zen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta "Casa Asia" eta Asia-Europa fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, "Diálogo de jóvenes sobre la cultura y civilizaciones" kongresua antolatzeke, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena zela-eta.

"SAN FRANCISCO Y SU TIEMPO" KONGRESUA

- Gobernuaren 2006ko urriaren 2ko Erabakia. Horren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilaria baimena eman zitzaion Nafarroako Unibertsitateari dirulaguntza bat emateko, hark laguntza eman zezan "San Francisco y su Tiempo" (V centenario del nacimiento de Francisco de Javier) kongresurako.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren urriaren 26ko 352/2006 Foru Agindua. Horren bidez, 40.000 euroko laguntza eman zaio Universidad de Navarra-Grupo Investigación Siglo de Oro, sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmen baten bidez arautuko dena.

Kultura zuzendari nagusiaren abenduaren 11ko 776/2006 Ebazpena. Horren bidez, baimentzen da GRISORI egin beharreko ordainketa, Nafarroako Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren ondoriozkoa.

Alegazio hau aurkeztu dugu jasota gera dadin izugarritzko ahalegina egin behar izan zutela departamentu honetako kudeatzaileek erabakitako jarduerak gauzatzeko beharrezkoak ziren espediente ugari eta askotarikoak izapidetzeko; hori guztia, jakina, departamentuaren kudeaketa arruntaren ondoriozko betebeharrak betetzeari utzi gabe.

Bigarren alegazioa: Xabierko gazteluko zaintza, zaharberitze eta egokitze lanak egiteko Jesusen Lagundiari emandako dirulaguntzari buruzkoa.

III. atalean. III.1 azpiatala. Kontusailak, aurkeztutako kontuak eta jardueren emaitza ekonomikoak. Horri dagokionez, hona hemen behin-behineko txostenaren iritzia (6. iritzia): "Foru administrazio-

ak, azken ordainketa egin baino lehen, kontrolatu beharko luke BEZaren salbuespenak behar bezala aplikatzen direla gauzatutako proiektuetan, eta ziurtatu beharko luke dirulaguntzen xede diren lanak amaituta daudela eta horien egiaztagiriak espedienteetan agertzen direla."

Gure ustez, Foru administrazioak kontrolatzen du BEZaren salbuespenen aplikazio egokia. Iritzia horren arrazoia da, ziurrenik, BEZaren salbuespenaren agiria ez dagoela jasota Jesusen Lagundiari gazteluko sarrerak zaharberitzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko emandako dirulaguntzaren espedienteetan.

Auditoreak azaldu bezala, Jesusen Lagundiak BEZeko salbuespena eskatu zuen Xabierko gazteluan egin beharreko lanetarako. 2003ko maiatzaren 20an, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atalak ondokoa ebatzi zuen: "Igorritako dokumentazioa ikusirik, atal honek bidezkotzat jotzen du Espainiako Estatuaren eta Vatikanoren arteko 1979ko urtarrilaren 3ko hitzarmenean ezarritako BEZaren salbuespena aplikatzea, Xabierko gazteluan egin beharreko lanei dagokienez, Construcciones Zubillaga, S.A.-k 2003ko apirilaren 16an eginiko aurrekontuaren arabera.

Xabierko gaztelua birgaitzeko aipatu aurrekontuak –Construcciones Zubillaga S.A.-k egina, 1. eta 2. faseei zegokiena–, zeinaren gainean salbuespena eman baitzen, aurreikusten zuen, beste esku-hartze batzuen artean, gazteluko sarrerak zaharberitzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea.

Ondoren, txostenaren atal berean, ondokoa esaten da: "Arduradunek adierazi digutenez, zuzenduko dute 35.551 euro BEZ bezala oker sartu izana Xabierko gazteluko lanen seigarren ziurtagirian –2004ko maiatzaren 10eko hitzarmena– eta sartu dute 2005ean eginiko enkarguetan eginiko gastuen 3.866,11 euroko gehiegizko kargua."

Xabierko gazteluko lanen seigarren ziurtagirian BEZa oker sartu izanari dagokienez, bidezkoa da ondoko alegazioa egitea:

Lan horietarako emandako dirulaguntza 2.395.738 eurokoa izan zen, eta horrek aurreikusitako inbertsio osoaren –3.691.628,44 euro, ordainsariak barne– ehuneko 64,90 egiten du.

Behin-behineko txostenean azaltzen da obra BEZetik salbuetsita zegoela eta seigarren ziurtagiriak BEZa ere jasotzen zela –35.551,05 euro–, eta horiek ez zirela kofinantzatu behar.

Aurrekoa egia izanda ere, egiaztatu da, halaber, azkenean ordaindutako dirulaguntza

2.395.738 eurokoa izan zela, hots, Nafarroako Gobernuak baimendutako gehieneko kopurua.

Proiektu honen amaierako inbertsioa handiagoa izan da -4.083.590,71 euro- eta, hori dela eta, BEZa dela-eta eginiko aipatu ordainketa hori konpentsaturik geratu da eginiko gainerako ordainketetan; izan ere, ez da gainditu diruz lagun daitekeen ehuneko -%64,90- aurreikusitako 3.691.628,44 euroko inbertsioari dagokionez, ez eta 2.395.738 euroko gehieneko zenbatekoa ere.

Enpresa eraikitzaileak 6. ziurtagiri berria igorri zuen, BEZik gabe, eta Xabierko gaztelua birgaitzeko lanen 1. eta 2. faseetako 16. ziurtagirian, espedientean jasota baitago, egiaztatzen da kontrata bidezko betetzea, guztira, 3.703.120,72 eurokoa izan zela, arkitekturen, aparejadorearen eta abarren ondorioz sorturiko beste gastu batzuk bestelako kontuan hartu gabe. Horrenbestez, seigarren egiaztagirian BEZa sartzean huts egin bazen ere -hutsegitea konponduta dago-, ez da inolaz ere gainditu baimendutako gehieneko dirulaguntza. Hori dela eta, gure ustez ez da bestelako zuzenketarik egin behar.

Baluart S.A.-k 2005ean eginiko enkarguengatik kargatutako gehiegizko gastua -3.866,11 euro- zuzentzeari dagokionez, aipatu zenbatekoa diruarreren kontuan sartu da ordainketa-gutun baten bidez. Sarrera-aginduaren zenbakia 5000045521 da.

Hirugarren alegazioa: Jesusen Lagundiari balio anitzeko ekipamendu erlijiozko-kultural bat eraikitzeke emandako 451.000 euro dirulaguntzari buruzkoa.

Behin-behineko txostenak dioenez, ez dago justifikatuta erantzukizun teknikoari buruzko zerbitzuan aldaketak egiteko beharra erdi beteta dagoen espediente batean, arduradun berriak ez duenean jarraipen- eta informazio-baliabide berriazkorik.

Behin-behineko txostenean esaten da baita ere 2004an "Xabierko plan zuzendaria" izeneko kontusailari 451.000 euro egotzi zitzaizkiola zentro hori eraikitzeke dirulaguntza emateko. Aipatu kontusaila "Kultur ondarea" izeneko A20 programa sartuta zegoen, zehazki Kultur Ondarearen Zerbitzuaren A20001 proiektuan.

Espedientea ireki zen kultur etxeen eta bestelako kultur zentroyen arloan eskudun den Kultur Ekintza Zerbitzuak eta ondare historikoaren arloan eskudun eta kontusailaren arduradun organikoaren Ondare Historikoaren Zerbitzuak elkarrekin proposatuta ireki zen, baina Kultur Ekintza Zerbitzuak izapidetu eta ebatzi zuen.

Ondare Historikoaren Zerbitzuak 2004an izandako esku-hartzea mugatu zen zentroyaren arkitektura-proiektuari buruzko txostena egitera -gaztelutik oso hurbil eraikitzea proposatu zen, interes kultureko ondasuntzat deklaraturiko inguru batean- eta lehen ziurtagiriak berrikustera; izan ere, kontusailaren ardura, bere kode organikoaren ondorioz, Ondare Historikoaren Zerbitzuari egokitu zitzaion 2004an.

2005ean, kontusailak "Xabierko balio anitzeko zentroa" izena hartu zuen eta Kultur Ekintza Zerbitzuaren "Kultur sustapena" izeneko A11 programan eta, zehazki, A11002 proiektuan zegoen jasota.

Kultur Ekintza Zerbitzuak teknikari arkitektozik ez duenez, egokitzen jo zuen eginkizun hori kanpora ateratzea, emandako dirulaguntzaren ordainketa berme nahikoarekin izapidetu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, gure ustez, justifikaturik dago arkitekto bat kontratatu izana Kultur Ekintza Zerbitzuari laguntzeko obren betetzeari eta obra-ziurtagiriei buruzko informazio-lan tekniko horietarako. Arkitektoaren lansaria 4.547 eurokoa izan zen, hau da, 2005ean emandako dirulaguntzaren -936.500 euro- ehuneko 0,48.

Laugarren alegazioa: "Baluarte S.A." sozietate publikoari Xabierko gazteluaren inguruko oinezkoentzako gunean argiteria publikoa aldatu eta zabaltzeko emandako enkarguari buruzkoa.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren urriaren 11ko 294/2005 Foru Aginduaren bidez, "Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A." sozietatearen estatutuak aldatzeko baimena eman zen. Zehazki, hauxe sartu zen helburu sozialean: "Sozietateak egin ahalko du Foru Komunitateko administrazioak eta harekin zerikusia duten edo haren mende dauden entitate publikoek agindutako edozein jarduera (kultur ekitaldiak, erakusketak, azokak, bilerak eta askotariko ekitaldiak), berriazko jardunarekin lotura duena, bere instalazioetatik kanpo egiten bada ere.

Horrenbestez, argiteria publikoaren sarea hobetzeko eta zabaltzeko lan materiala ez da sartzten, zuzenean, "Baluarte, Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A." helburu sozialean; hala ere, uler daiteke merkataritza sozietatearen berriazko jarduerarekin -eratu zenean bere helburu soziala Nafarroako Kongresu Jauregia eta Auditorioa eraikitzea eta hornitzea zen- zerikusia baduela.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoen bitartez egin beharreko obra, zerbitzu, hornidura eta gainerako jardueren zuzeneko exekuzioa arautzen duen ekainaren 23ko

150/2003 Foru Dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusten da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari departamentuek sozietate publikoei agindu ahal dizkietela, beren eskumen eta eginkizunetarako beharrezkoak diren lan eta jardueren gain, horien osagarri diren beste batzuk ere. Kasu honetan, esan behar da asmoa zela Baluarte S.A.-ri agintzea V. mendeurrenako kultur programa betetzea —eta hala egin zen, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 15eko 38/2006 Foru Aginduaren bidez—. Programa Xabierren gauzatu behar zen nagusiki, eta horretarako erabat ezinbestekoa zen ordurako argiteria egokia jartzea.

Bosgarren alegazioa: “Baluarte S.A.” sozietate publikoari Nafarroaren Eguneko kontzertua eta otamena antolatzeke emandako enkarguari buruzkoa.

Behin-behineko txostenean esatenenez, administrazioari kudeatzaileek ez dute espedientean jasota hirugarrenek eginiko zerbitzuak eta lanak justifikatzeko dokumentazioa. Hori horrela bazen ere espedientea fiskalizatu zenean, aipatu dokumentazioa geroago igorri zitzaion auditoreari; hori dela eta, gure ustez, hori behin-behineko txostenaren akats bat da eta zuzendu behar da.

Seigarren alegazioa: Xabierko espiritualtasun zentroko barneko patioan gune estali bat jartzeko eta basilikako plazako zoladura jartzeko emandako dirulaguntzari buruzkoa.

Plazako lurzatiaren titulartasunari dagokionez, esan behar da erregistro desberdinetako dokumentazioan (udal katastroa eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala) ez dago jasota nor den lurzati horien titularra, soilik bide gisa inskribatuta agertzen baitira.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren martxoaren 13ko 71/2006 Foru Aginduaren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari atxiki zitzaizkion Xabierko gune turistiko ondasun eta azpiegiturak.

Kontsulta egin zaio Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskala, beharrezkoak diren izapideak egiteko, administrazio honi eta Xabierko Udalari dagokion lursailen titulartasuna bereizteko.

Zazpigarren alegazioa: Sozietate pribatu batekin eginiko kontratua, programaren betetze teknikorako beharrezkoak ziren jarduerak egiteko.

Kontratua 2005eko abuztuaren 1ean sinatu zen, eta gastua baimentzen duen ebazpena 2005eko irailaren 13koa da. Zenbatekoa 12.020, 20 euro baino gutxiagokoa zenez, ez zen behar-

rezkoa kontratua egitea, ez eta gastua baimentzeko ebazpena; aldiz, nahikoa zen ordainagiria egitea.

Behin-behineko txostenaren arabera, 13.102 euro ordaindu zitzaizkion aipatu enpresari. Kontratuaren arabera, 12.000 euro ordaindu ziren, eta gainerako 1.102 euroak FITUR azokarako kontratatu zen pertsona bati dagozkio; hau da, gastu horrek ez du inolako zerikusirik aipatu ebazpenaren bidez baimendutako gastuarekin. Kontuan hartu behar da Nafarroako 2006ko aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legearen 27. artikulua baimean ematen zuela “Xabier 2006” izeneko kontusailari egozteko V. mendeurrenaren kariaz eginiko Nafarroa sustatzeko jarduerak guztiak.

Hona hemen behin-behineko txostenak dioena puntu horri dagokionez: “Lehen aipatu pertsona, beste aldi baterako kontratatu batekin eta funtzionario koordinatzailearekin batera, V. mendeurrenarako lanean aritu zen 2006an, Baluarte sozietate publikoan. Aldi baterako bi kontratatuak, Baluarte aldi baterako laneko enpresa batekin eginiko kontratu baten bidez, eta koordinatzailea “zerbitzu berezietako” egoeran.

2005eko abendura arte funtzionarioak ez zuen lortu “Xabierko jardueren koordinatzaile” izendapena, baina horrek ez zuen ekarri doikuntzarik Kultura Departamentuak 2005eko apirilean proposaturiko eta eskaturiko lansari osagarrietan.

“Baluarte S.A.” sozietateak langileak behar ditu V. mendeurrenaren antolamenduari buruzko enkargua betetzeko. Koordinatzailearen kokaguneari eta osagarriari eta Baluarteren langile-beharren konponbidea izan da koordinatzailea sozietate publikora joatea, zerbitzu berezien egoeran, eta aldi baterako kontratatutako bi langileak berarekin batera jarraitzea, Baluarteren.

Langile horien kostua 120.708 euroko izan zen, eta zenbateko horretan sartuta dago sozietate publikoak kargaturiko ehuneko hamarreko marjina —12.071 euro—. Espedientean ez dago behar bezala justifikatuta langile horiei V. mendeurrenako lanak egiteko enkargua betetzeko eraginkortasun-arrazoia; izan ere, Kulturen lan egiten zuten hiru pertsonak “Baluarte S.A.” enpresara joan ziren, kostu handiagoarekin, lan berbera egitera.”

Hasteko, esan behar dugu ez gaudela ados ondoko baieztapenarekin: “Koordinatzailearen kokaguneari eta osagarriari eta Baluarteren langile-beharren konponbidea izan da koordinatzailea sozietate publikora joatea, zerbitzu berezien egoeran, eta aldi baterako kontratatutako bi langileak berarekin batera jarraitzea, Baluarteren.”

“Baluarte S.A.” sozietateak V. mendeurrenerako programaturiko jardueren antolamenduan parte hartzeko erabakia, enkarguen bidez, lehenago hartu zen, eta horren froga da akziodunen batzar nagusiak onetsitako estutuen aldaketa.

Programaturiko jardueren plangintzan parte hartzen zuten funtzionarioa eta kontrataturiko bi pertsonak “Baluarte S.A.-ren” mendean egotera pasa izana ez zen erabaki inolako arazoren konponbide gisa. Horrekin lortu nahi zena zen jada eginak zeuden prestaketa-lanak eta aipatu langileek horiei buruz zuten ezagutza baliatzea enkarguz eman behar ziren jarduerak gauzatzeko.

Hala, enkargua egin zen Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko kultur programa betetzeko enkargua “Baluarte, Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, S.A.-ri” ematea onesten duen eta 1.926.870 euroko gehieneko gastua, BEZa barne, baimentzen duen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 15eko 38/2006 Foru Aginduaren bidez.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren apirilaren 18ko 94/2006 Foru Aginduaren bidez aldatu egin zen otsailaren 15eko 38/2006 Foru Aginduaren bidez eginiko enkargua, eta 100.000 euro liberatu ziren, BEZa barne, Baluarteri enkarguz emandako ekitaldietako baten antolamenduan izandako aldaketa baten ondorioz.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren abenduaren 14ko 421/2006 Foru Aginduaren bidez aldatu egin zen otsailaren 15eko 38/2006 Foru Aginduaren bidez eginiko enkargua, eta 140.000 euro liberatu ziren, BEZa barne.

Eta, azkenik, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren abenduaren 29ko 513/2006 Foru Aginduaren bidez aldatu egin zen otsailaren 15eko 38/2006 Foru Aginduaren bidez eginiko enkargua, eta 109.479,21 euro liberatu ziren, BEZa barne.

Hau da, proposaturiko programaren arabera egin beharreko gastua, hasieran 1.926.870 eurokoa zena, BEZa barne, 100.000 euroan murriztu zen lehenbizi eta, Baluarte S.A.-k eginiko doikuntza eta proposamenei esker, beste 249.479,21 euroan murriztu zen geroago.

Arestian aipatutako guztiagatik, gure ustez, espediente honetan, hain zuzen ere, eraginkortasuna erabat egiaztatuta geratu dela kultur programaren betetzea “Baluarte S.A.-ri” enkarguz emate-rakoan.

Zortzigarren alegazioa: “Frantzisko Xabierkoaren kultura ibilbidea” prestatzeko laguntza teknikorako kontratuari buruzkoa.

Kontratua Kultura zuzendari nagusiaren otsailaren 25eko 36/2005 Ebazpenaren bidez esleitu zen, 20.900 euroan, “Frantzisko Xabierkoaren kultura ibilbideari” buruzko espediente prestatzeko, Ondare Historikoaren Kontseiluaren aurrean aurkezte aldera.

Munduko Ondare izateko hautagai gisa aukeraztea nahi genuen, Unescoren aurrean aurkezteko. Ondare Historikoaren Kontseiluak bilera egin zuen L'Escalan, 2005eko ekainean, eta Kultura Ministerio ordezkariekin izandako elkarrizketak eta une hartako inguruabarrak zirela-eta, hautagaitza kopurua aurkez daitekeena baino handiagoa baitzen, erabaki zen Frantzisko Xabierkoaren kultura ibilbidearen hautagaitza erretiratzea, argi utzita 2006an berriro aurkeztuko zela, urte horretan Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren mendeurrena ospatu behar baitzen. Aipatu bileran adierazi zen zer aldaketa egin behar ziren espedientearen, zer kontsulta eta aurkezpen egin behar diren Kultura Ministerioan eta ICOMOS Españan, bai eta ibilbidea konpartitzen duten herrialdeetako baten atxikipenaren bidez hautagaitza nazioarteko bihurtzearen garrantzia ere.

Hori dela eta, geroago, azaroaren 30eko 547/2005 Ebazpenaren bidez, kontratu bat onetsi zen Frantzisko Xabierkoaren kultura ibilbideari buruzko espediente prestatzen jarraitzeko eta Ondare Historikoaren Kontseiluak L'Escalan egini-ko bileran egin zituen iradokizunak jasotzeko.

2006ko ekainean, Ondare Historikoaren Kontseiluaren bilera Iruñean eta Xabierren egin zen, eta bertan aurkeztu zen berriro Frantzisko Xabierkoaren kultura ibilbideari buruzko espediente kontseiluak onetsi zezan, eta halaxe egin zuen.

Hori dela eta, beste kontratu bat egin zen hautagaitza prestatzeko, UNESCOn aurkezte aldera. “Frantzisko Xabierkoaren kultura ibilbideari” buruzko espediente egokitzeko 2005ean hasitako zuzemenei berriro heldu behar zitzairen, eta ezinbestekotzat jo zen hasieratik aipatu espediente prestatzen eta kudeatzen aritu zen talde berberak egitea, espedientearen ezaugarri bereziak, epeak eta berariazko edukia kontuan hartuta.

Arestian aipatutakotik ondorioztatzen da ezinezkoa zela aurreikustea hasiera batean ez kontratuaren xedearen amaierako edukia, ez iraupe-na, ez eta, horrenbestez, prezioa ere. Halaber, asmoa ez zen inolaz ere kontratuaren xedea zatikatzea.

Behin-behineko txostenean ohartarazpen bat dago jasota, gastu horiek 2005, 2006 eta 2007an egotzi zaizkien kontusail desberdinei buruzkoa, eta, horri dagokionez, esateko dugun gauza bakarra da 2008ko aurrekontuen aurreproiektuan agertzen dela "Frantzisko Xabierkoaren kultura ibilbidea" izeneko A2100-A20001-2276-337100 kontusaila, 82.000 euroko zuzkidura duena.

Bederatzigarren alegazioa: Boluntario kidego bat antolatzeko Nafarroako Kutxa fundazioarekin eginiko hitzarmenari buruzkoa.

Nahiz eta, behin-behineko txostenak dioen moduan, hitzarmenean ez den ezer aipatzen espresuki itzulketa egiteko bete behar ziren baldintzei buruz, bistakoa dirudi klausulen arabera –zehazki, bigarrena– Nafarroako Kutxa fundazioak proiektu horren babesle gisa parte hartzen zuela eta, horrenbestez, bere ekarpena soilik bideratu behar zela boluntarioekin zerikusia zuten gastuetara.

Laburbilduz, eta seigarren klausulan aurreikusten zen moduan, Jarraipen Batzordeak erabili gabeko zenbatekoak itzultzea proposatu zuen.

Kontuan hartu gabe erabili gabeko zenbatekoen itzulketa dirusarrera txikiago gisa kontabilizatu behar zen, behin-behineko txostenean proposatzen den moduan –proposamena erabat onartu dugu eta halaxe egiteko eskatu dugu–, eta ez gastu gisa, eztabaidaezina dirudi Foru Komunitateko administrazioak ezin zituela beretzat hartu erabili gabeko zenbatekoa, beste xederen baterako.

Hamargarren alegazioa: Dirulaguntza Jesusen Lagundiari emandako dirulaguntzari buruzkoa, gazteluko sarrerak zaharbertitzeko eta oztopo arkitonikoak kentzeko.

Dirulaguntza hori Dirulaguntzei buruzkoa azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen babesean eman zen. Aipatu foru legeak espresuki aurreikusten du jada eginiko proiektuei dirulaguntzak emateko aukera. Hori dela eta, ez da harritzeko dirulaguntza "ex post" eman izana, aukera hori erabat egokitzen baita indarrean dagoen araudira.

Proiektua betetzeko baldintzak aldeztu aurretik adostu ez izanari dagokionez, berriro esan behar dugu Kultura Zuzendaritza Nagusiak aginduzko txostena egin zuela Xabierko gaztelua birgaitzeko proiektuari buruz –inbertsio hau ere proiektu horren barruan dago–; izan ere, interes kulturalako ondasuna da.

Ez gaude ados edo ez dugu ulertzen auditoreak espediente honi buruz duen iritzia. Esleipen zuzena dirulaguntzak emateko prozedura bat da,

eta jasota dago bai indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko foru legean, bai jada indargabetutako ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legean.

Egin beharreko lanen eta jarri beharreko kredituen aurreikuspenaren programazio aski ezari buruz behin-behineko txostenean esaten denari dagokionez, esan behar da ekimen hori eta V. mendeurrena dela-eta eginiko beste batzuk finantzatzeko une bakoitzean erabilgarri zeuden aurrekontu-kredituak erabili zirela, Ogasunari buruzko Foru Legearekin bat etorritz.

Hamaikagarren alegazioa: Publizitatearen arloko gastuei buruzkoa.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak enkargua egin zion Komunikazio Zuzendaritza Nagusiari, urtarrilaren 1eko 1/2006 Ebazpenaren bidez, publizitatea kontrata zezan eta V. mendeurrenako ekitaldien barruan erakusketa ibiltari bat antolatu eta heda zezan. Horretarako, 1.000.000 euroko gastua baimendu zuen.

Komunikazio zuzendari nagusiaren otsailaren 8ko 15/2008 Ebazpenaren bidez, aipatu kontratua GAP'S Comunicación Pamplona S.L. enpresari esleitu zitzaion, 993.433 eurogatik.

Enpresa esleipen-hartzaileak bi ordainagiri aurkeztu zituen, 719.983,69 eta 273.449,16 eurokoak, hurrenez hurren, eta, adostasuna zegoenez, ordaindu egin ziren.

Behin-behineko txostenak dio enpresa esleipen-hartzaileak 1.006.725 euro fakturatu zituela Kultura Departamentuari 2006an, eta horrek aipatutako ebazpenek baimendutako gehieneko gastua gainditzen duela.

GAP'S enpresarekin egin zen kontratuaren esleipenaren eta 2006an ordaindutako zenbatekoaren arteko aldearen arrazoa da kontratu horren xedearen bestelako enkarguak ere egin zitzaizkiola enpresa horri, eta, enkargu horien zenbatekoa dela-eta, zerbitzu desberdinek eskatu zituzten eta ordainagiriak aurkeztu ondoren ordaindu ziren. Bistan da GAP'S-ekin kontratu bat egiteak, zenbait zerbitzu emateko prezio jakin baten truke, ez duela galarazten inolaz ere bestelako enkarguak ere egin ahal izatea, beren zenbatekoagatik ordainagiria beste kontratu-formalizaziorik behar ez dutenak, eta halaxe gertatu zen; izan ere, enpresa hori da administrazio honen publizitatearen esleipen-hartzailea.

Hamabigarren alegazioa: "Los Señores de Javier. Un linaje en torno a un Santo" erakusketarako jendearen harrera-zerbitzua emateko laguntza teknikorako kontratuari buruzkoa.

“Los Señores de Javier. Un linaje en torno a un Santo” erakusketarako jendearen harrera-zerbitzua emateko laguntza teknikoaren prestazioen handitzea, 2.434 eurokoa, ez zen kargatu Kultura zuzendari nagusiaren 105/2006 Ebazpenaren barruan. Zuzendari nagusiak gastua baimendu zuen organo kudeatzaileak ez ziolako horren berri eman Kudeaketa Ekonomikorako Zerbitzuari. Hala ere, 2.434 euroko gastu hori 2006ko aurrekontuko “Erakusketak eta animazioa” kontusail berari egotzi zitzaion. Hau da, kontabilitateko irizpide soilak aplikatuta, “akats” horrek ez du inolako garrantzirik.

Hamahirugarren alegazioa: Eginiko ohartarazpenen gaineko gomendioei buruzkoa.

Auditoreak zenbait gomendio egin ditu. Gomendio horiek, oro har, onargarriak dira eta jada aztertu dira aurreko alegazioetan. Hala ere, ondokoa adierazi nahi dugu:

Indarrean dagoen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 2.1 b) artikuluan espresuki aurreikusten da dirulaguntzak emateko aukera, proiektuak gauzatzeko, jarduerak egiteko edota jokabide berezia hartzeko, xede horiek jada burutuak nahiz oraindik burutu gabeak izan.

Hornitzaileen/kontratu-hartzaileen hautaketa justifikatzeari buruzko aipamena baliagarria da soilik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea indarrean sartu zenetik (28.2. artikulua), eta onuradunak, dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa denean (obraren exekuzioaren kostua izanez gero), frogatu egin beharko du hornitzailea efizientzia eta ekonomia irizpideei jarraituz hautatu duela. Orduan indarrean zegoen Dirulaguntzei buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeak, berriz, ez zuen ezartzen inolako betekizunik kontratu-hartzaileen hautaketari dagokionez.

Iruñean, 2007ko abenduaren 19an.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilari Juan Ramón Corpas jaunak aurkeztutako alegazioak jaso ditugu eta horiek osoki xertatu dira fiskalizazio-txostenaren eranskinean.

Alegazio horiei buruz, honako zehaztapen eta iruzkinak egin nahi ditugu:

Lehen alegazioa: II. atala. Helburuak, norainokoa eta mugak. II.2 azpiatala. Norainokoa.

Txostenak V. mendeurrenaren kudeaketa eta betetzeari buruzko iritzia, ondorioak eta gomendioak jasotzen ditu eta, horretarako oinarritu da, funtsean, kontusailen kudeaketari, kontratuen onsenari eta betetzeari eta sinatutako enkargu eta hitzarmenei buruz eginiko azterketan, bai eta V. mendeurrenari buruzko berariazko gastuen gainean eginiko kontrolean ere.

Proiektuen, kontratuen eta espedienteen kudeaketari eta betetzeari buruzko ikuspegi funtsadun bat izate aldera, beharrezkoa baita gure iritzia emateko, Comptos Ganberak identifikatutako gastuen zenbateko osoaren gaineko jardueren lagin zabal bat hautatu du. Erabilitako zenbateko osoak alegazioan aipatzen diren espedienteak ere hartzen ditu. Hala, aztertutako laginak ehuneko 100aren gastu-portzentajea adierazten du laugarren kapituluari –Transferentzia arruntak– eta seigarrenari –Inbertsio errealak– dagokienez, ehuneko 75 baino handiagoa zazpigarren kapituluari –Kapital transferentziak– dagokienez, eta ehuneko 50 baino handiagoa bigarren kapituluari dagokienez.

Comptos Ganberak ezartzen du lana gauzatzekoan aplikatu beharrezkotzat jotzen duen fiskalizazio-eremua, fiskalizazioaren helburuei erantzun oinarriduna emate aldera.

Bigarren alegazioa. Xabierko gazteluko zaintza, zaharberitze eta egokitze lanak egiteko Jesusen Lagundiari emandako dirulaguntzari buruzkoa.

Comptos Ganberak kontuan hartu ditu III.1 idatz-zatian –Iritzia, BEZaren aplikazioari eta espedienteetan agertu beharreko justifikazioari buruzkoa–, eta zehaztu du txostenean arduradunek behar bezala jokatu dutela seigarren ziurtagiriaren BEZa eta kargaturiko gehiegizko gastuen zenbatekoa zuzentzerakoan.

Hirugarren alegazioa: Jesusen Lagundiari balio anitzeko ekipamendu erlijiozko-kultural bat eraikitze emandako 451.000 euro dirulaguntzari buruzkoa.

Xabierren balio anitzeko ekipamendu erlijiozko-kultural bat egiteko proiektuak, 2004 eta 2005ean gauzatu baitzen, proiektu bera eta bakarra izaten jarraitzen du, nahiz eta bi aurrekontu-ekitaldietan gauzatu. Gure ustez, kontusaila eta kontusailaren izena aldatzeak ez dute justifikatzen proiektuaren erdian haren jarraipen teknikoaren eta ziurtagiriaren egiaztapen teknikoaren ardura zuen arkitektoa aldatzea eta kanpoko teknikari bat kontratatzea.

Laugarren alegazioa: "Baluarte S.A." sozietate publikoari Xabierko gazteluaren inguruko oinezko-entzako gunean argiteria publikoa aldatu eta zabaltzeko emandako enkarguari buruzkoa.

Alegazioa da txostenean egiten den ohartarazpen bati buruzkoa; alegia, lehen aipatutako enkarguaren legez kontrakotasunari buruzkoa. Zehazki, aipatu ohartarazpenak dio legeak ezartzen dituen betekizunen arabera, enkarguz emandako obrak sozietate publikoaren helburu sozialaren eremuko izan behar duela. Comptos Ganberaren ustez, argiteria publikoaren sarea hobetzeko eta zabaltzeko lana ez dago jasota "Baluarte S.A.-ren" helburu sozialean, eta txostenean enkargu horri buruz azaldutako iritzia berresten du.

Bosgarren alegazioa: "Baluarte S.A." sozietate publikoari Nafarroaren Eguneko kontzertua eta otamena antolatzeke emandako enkarguari buruzkoa.

Eginiko ohartarazpenak nabarmentzen du gabezia bat egon dela barne kontrolean, eta, gabezia garrantzitsua denez eta behin eta berriro atzeman denez V. mendeurrenako espedienteetan, behin-behineko txostenean mantentzea erabaki da. Hala ere, iruzkin hori ez da agertzen behin betiko txostenean.

Seigarren alegazioa: Xabierko espiritualtasun zentroko barneko patioan gune estali bat jartzeko eta basilikako plazako zoladura jartzeko emandako dirulaguntzari buruzkoa.

Comptos Ganberak ongi ikusten ditu foru administrazioari dagozkion lursailak bereizteko eta horien titulartasuna zehazteko hasitako jarduerak.

Zazpigarren alegazioa: Sozietate pribatu batekin eginiko kontratua, programaren betetze teknikorako beharrezkoak ziren jarduerak egiteko.

- Sozietate pribatu batekin kontratua egin eta zenbatekoaren mugaren arabera jarraitu beharrezko lizitazio- eta hautapen-prozedurak zehazteko orduan, gure ustez, aurrez ikusi eta kontuan hartu beharko lirateke V. mendeurrena gauzatzen del epean hornitzaile berari eskatuko zaizkion mota eta zerbitzu bereko beharrezkoak, eta horrela ziurtatuko litzateke lehia, publizitate eta berdintasun printzipioak errespetatzen direla hornitzaileen hautaketan eta kontratuaren esleipenean. Beharrezko mota berak estaltzeko ordaindutako osoko zenbatekoek gainditzen dute 2005eko abuztuaren 1ean eginiko laguntza-kontratuan ezartzen zen 12.000 euroko muga.

Eta hala, prestazio mota bera, programa eta helburu bererako eginak eta pertsona berak eginak, Kultura Departamentuak 2005eko abuztuaren

1ean enpresa pribatu batekin kontratu zituenak, etenik gabe egiten jarraitzen dute Baluartek eta beste enpresa pribatu batek 2006ko urtarrilaren 9an sinaturiko beste kontratu baten bidez, ezarritako prestaketarako eta esleipenerako printzipioak eta prozedurak errespetatu gabe.

1.102 euroko beste zenbatekoari dagokionez, irizpide orokorrari jarraikiz eta banakako zenbatekoa kontuan hartu gabe, aztertu beharko litzateke prestazioak beste enpresa batekin edo batzuekin kontratatutakoen mota berekoak eta epe berean egitekoak ote diren, eta merkatu beraren xede izan ote daitezkeen, eta, kasu horretan, mota bereko beharrezkoak eta prestazioentzat aurreikusitako osoko zenbatekoari dagokion lizitazio prozesura aplikatu beharko litzateke.

- 2006an, V. mendeurrena kudeatzeko eta antolatzeko beharrezkoak diren langileak kontratazearekin lotuta, hona hemen gertakarien kronologia:

Txostenean jasotzen den moduan, Kultura Departamentuak eskatu zituen, 2005eko apirilaren 29an, V. mendeurrena ospatzeko jarduerak koordinatzeko, abian jartzeko, betetzeko eta ebaluatzeko eginkizunak izanzen zituen lanpostuaren titularrarentzat proposatutako lanasari osagarriak.

Funtzio Publikoaren zuzendariaren ekainaren 20ko 1590/2005 Ebazpenaren bidez, zerbitzu eginkizunetarako baimena eman zitzaion lehen aipaturiko eginkizunak esleitu zitzaizkion pertsonari. Pertsona hori Xabierren urteko jardueren koordinatzaile lanetan hasi zen 2005eko ekainean.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak "Baluarte S.A.-ren" estatutuak aldatzeko baimena eman zuen 2005eko urriaren 11n.

2005eko azaroaren 7an, Vianako Printzea Era-kundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak jakinarazi zion Funtzio Publikoko zuzendari nagusiarri Nafarroako Gobernuak onetsitako jarduera eta proiektuen betetzea "Baluarte S.A." sozietate publikoari esleituko zitzaioala, eta Batzorde Antolatzaileak egokitzen jo zuela pertsona hori aipatu sozietate publikoaren mendean egotera 2005eko azaroaren 15etik aurrera, betiere bere administrazio-egoera erregularizatze aldera.

2005eko azaroaren 14an, Funtzio Publikoko zuzendariak ebatzi zuen ondorioz gabe uztea koordinatzaileari emandako zerbitzu eginkizuna eta zerbitzu berezien egoeran deklaratzeko, zerbitzu horiek "Baluarte S.A.-n" emateko.

Halaber, 2005ean Kultura Departamentuan lan egiten zuten aldi baterako kontratatutako bi langileak aipatu sozietate publikoan lan egiten hasi

ziren 2006an, enpresa bitartekari batekin eginiko kontratu baten bidez. Kontratu hori egin zen ezarritako prestaketarako eta esleipenerako printzipioak eta prozedurak errespetatu gabe.

Aipatu gertakariak ikusirik, Comptos Ganberak berresten du txostenean adierazitako iritzia, V. mendeurrena kudeatzeko eta antolatzeko langileak kontratatzeari buruzkoa, estatutuak aldatu eta enkargua egin baino zenbait hilabete lehenago hasi eta enkargua egin zenean ebatzi baitzen. Txostenean agertzen den esaldia, "Koordinatzailearen kokagunearen eta osagarrien eta Baluarteren langile-beharren konponbidea izan da berarekin batera jarraitzea, Baluarten" dioena, zehaztu egin da txostenean, eginiko ohartarazpenak jasotze aldera.

Zortzigarren alegazioa: "Frantzisko Xabierkoaren kultura ibilbidea" prestatzeko laguntza teknikorako kontratuari buruzkoa.

Comptos Ganberaren txostenak irizten dio hiru blokeek proiektu eta merkatu bakarra osatzen dutela, eta egiaztatu du 2006ko abendua bitartean 38.500 euro ordaindu zaizkiola talde berari.

Ekainaren 4ko 412/2006 Ebazpenarekin batera doan Ondare Historikoaren Zerbitzuko zuzendariaren txostenak berak aipatzen du, proiektuaren konplexutasuna dela-eta, ulertu behar dela hiru bloketan eratzen dela: prestaketa, jada beteta dagoena, abian jartzea, betetzen ari dena, eta gauzatzea, kontratatu behar dena. Halaber, espedientearen esaten da bigarren kontratua lehenbizikoaren osagarria dela. Gure ustez, arduradun kudeatzaileek aurreikusitako behar zuten kontratuaren zenbateko osoa, hiru aldiak kontuan hartuta, lizitazio-prozedurak ezarri eta abian jartzerakoan.

Comptos Ganberak ongi ikusten ditu espedientearen zailtasunari buruz eginiko alegazioak, baina berriro azpimarratzen du beharrezkoa dela gastuen aurreikuspena bultzatzea, azkenean enkargaturiko proiektuaren balioari dagozkion kontratazio-prozedurak, publizitate eta lehia egokia bermatzen dutenak, beharrezkoak izan daitekeen kasuetan.

Bederatzigarren alegazioa: Boluntario kidego bat antolatzeko Nafarroako Kutxa fundazioarekin eginiko hitzarmenari buruzkoa.

Comptos Ganberaren ustez, ahal den guztia egin behar da hirugarrenek proiektu publikoetarako eginiko ekarpen finantzarioak ezarritako helburuak lortze aldera baliatzeko, eta, edonola ere, hirugarrenekin egiten diren laguntza finantzarioari buruzko hitzarmenen betetze finantzarioaren gaineko baldintzak jaso beharko lituzkete beren klau-

sulen artean, batez ere ekintzak ososrik betetzen ez diren kasuetarako.

Hamargarren alegazioa: Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen babesean Jesusen Lagundiari emandako dirulaguntzari buruzkoa, gazteluko sarrerak zaharberritzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko.

Aipatu dirulaguntzei buruzko foru legean ezarritzen dira dirulaguntzen kudeaketan aplikatu beharreko kudeaketa egokiari buruzko printzipioak. Hala, kudeaketari buruzko printzipio eta irizpideen artean, ondokoak dira aipagarrienak: 5.1. artikuluan ezartzen da dirulaguntzen kudeaketa ondoko printzipioei jarraikiz eginen dela: kontrola, dirulaguntza ematen duen administrazioak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean. 5.2 artikuluan, legeak ezartzen du dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten organoek alde aurretik adierazi beharko dutela zein xede eta onura publiko edo sozialeko eragin lortu nahi diren, zenbat denbora behar den horiek lortzeko, ustez zenbateko kostuak izanen diren eta zein finantzabide erabiliko diren, eta, betiere, aurrekontu-kontsignazioa egotearen menpe jarriko dutela dirulaguntza.

Foru legearen 26.3 artikuluan mugak ezartzen dira diruz lagundutako jardueraren azpikontratazioari dagokionez. Hala, onuradunak ezin izanen du jardueraren ehuneko 50 baino gehiago azpikontratu, baldin eta dirulaguntzari buruzko araudian hala ez bada aurreikusten.

Obra honetan eta, oro har, *ex post* eman diren obretarako dirulaguntzetan egiaztatu da onuraduna izan dela proiektuaren aurrekontua, diruz lagundutako ekintzaren zenbatekoaren ehuneko ehunaren kontratazioa, kontratu-hartzailearen hautaketa, prezioak eta betetze-baldintzak onetsi eta kudeatu dituen, alde aurretik ezarri eta hitzartu gabe ekintza betetzeko, finantzatzeko eta azpikontratazeko baldintzak. Eta, horren ondorioz, ez dago foru administrazioaren alde aurreko esku-hartzerik gabe eta ekintza betetzerakoan lehen aipatutako kudeaketa egokiari buruzko printzipioak betetzen direla ziurtatu gabe. Halaber, gazteluko zabalgunean eginiko obrei dagokionez, atzeman da dirulaguntza hirugarren bati eman zaiola, publizitaterik eta lehiarik gabe, bere titulartasuneko eremuak konpontzeko eta berritzeko, halako moduz non Nafarroako Gobernuan obren ardura duen unitate organikoak ez zuen bere gain hartu horien kudeaketa zuzena, sarbideak konpontzeko obrekin gertatu ez bezala, obra horiek Herri Lan Departamentuak egin baitzituen.

Foru administrazioak jarraitu ahal zuen eta jarraitu beharko zukeen obrak egiten kontuan izanda aldez aurretik ezarri eta kontrolatutako zenbait baldintza eta irizpide, lagunduko luketeenak kudeaketa egokiari buruzko helburu eta baldintzak betetzen, baina ez zuen halakorik egin, nahiz eta Batzorde Antolatzaileak aurreko ekitaldietatik ezagutzen zuen obrak egiteko beharra.

Hamaikagarren alegazioa: Publizitatearen arloko gastuei buruzkoa

Txostenaren IV.3.6 idatz-zatiaren azken esaldia aldatu egin da zehazteko 1.006.725 euroko zenbatekoak beste zerbitzu batzuek eginiko enkarguak ere hartzen dituela.

Comptos Ganberak uste du jarduera-programaren kudeaketaren ardura zuen Kultura Departamentuak kontuan hartu behar zuela enpresa esleipen-hartzailearekin V. mendeurrenari buruzko publizitaterako aurrekontu bakarra aurreikusteko eta onartzeko komenigarritasuna.

Hamabigarren alegazioa: "Los Señores de Javier. Un linaje en torno a un Santo" erakusketarako jendearen harrera-zerbitzua emateko laguntza teknikorako kontratuari buruzkoa.

Txosteneko ohartarazpenak ez dira hainbeste kontabilitateari buruzkoak, laguntza teknikoa emateko kontrataturiko hornitzaile berarekin kontratatu-

riko zenbatekoen kordinazio eta kontrolari buruzkoak baino.

Hamahirugarren alegazioa: Eginiko ohartarazpenen gaineko gomendioei buruzkoa.

Alegazioaren lehen lerrokadan adierazitakoari dagokionez, aurreko hamargarren alegazioan azaldutakoari gagozkio. Komeni da azaltzea txostenean dirulaguntzak aztertzen direla kudeaketa egokiaren printzipioen aplikazioaren ikuspuntutik, eta ez da inon ere aipatzen dirulaguntzak *ex post* ematea berez arauz aurkakoa denik.

Bigarren lerrokadan alegatutakoari dagokionez, baliabide publikoen erabilerari aplikagarri izan zaizkio eta gaur egun ere aplikagarri zaizkio kudeaketa egokiari, kontrolari, eraginkortasunari eta efizientziari buruzko printzipioak, eta printzipio horien garapena da aurreko dirulaguntzei buruzko legearen helburua. Gure ustez, foru administrazioak zuzenean inplikatu behar zuen, hasieratik, V. mendeurrenarekin zerikusia zuten obretan, aldez aurretik eta formalki hitzartu behar zituen helburuak eta finantzaketari eta betetzeari buruzko irizpide eta baldintzak eta horiek bete zirela kontrolatu behar zuen.

Horrenbestez, txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2008ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	